



2030
ESTRATEGIA

**Euskadin
soldata-arrakala
murrizteko**



*Euskadi,
bien común*



Euskadin Soldata Arrakala murrizteko Estrategia eta Plan Operatiboaren aurrerapen-mailaren, neurrien eta jarduketen gauzatzearen 2021eko eta 2022ko jarraipen-txostena

2023ko azaroa

Aurkibidea

1. AURKEZPENA.....	4
2. ERREFERENTZIA ESPARRUA: EUSKADIN SOLDATA ARRAKALA MURRIZTEKO ESTRATEGIA ETA PLAN OPERATIBOA.	6
3. METODOLOGIAREN INGURUKO OHARRAK	17
4. I. EMAITZAK: JARDUKETA NEURRIEN AURRERAPEN MAILA	18
4.1 2020ko I. Plan Operatiboari buruzko txosten honetan aztertu beharreko neurrien ezarpen-maila.....	18
4.2 2025eko II. Plan Operatiboan aurreikusitako neurrien ezarpen-maila.....	20
4.2.1 Neurrien garapen maila 2021ean	21
4.2.2 Neurrien garapen maila 2022an	24
4.3 Emakumeak Industrian Txertatzeko Planari lotutako neurrien ezarpen-maila	27
4.3.1 2020ko I. Plan Operatiboan jasotzen diren Emakumeak Industrian Txertatzeko Planari lotutako neurriak	28
4.3.2 2025eko II. Plan Operatiboan jasotzen diren Emakumeak Industrian Sartzeko Planari lotutako neurriak	29
4.4 Exekutatutako aurrekontua	32
4.4.1 2020ko I. Plan Operatiboko neurriei dagokienez exekutatutako aurrekontua	32
4.4.2 2025eko II. Plan Operatiboko neurriei dagokienez exekutatutako aurrekontua ...	34
4.5 Kontsiderazio kualitatiboak.....	39
5. II. EMAITZAK: EKINTZA PLAN OPERATIBOEN BETETZE MAILA, NEURRIAK EZARTZEAREN ONDORIOZ	40
5.1 Estrategian eta Plan Operatiboetan definitutako adierazleen emaitza.....	40
5.2 Soldata Arrakalaren beste adierazle batzuen emaitza.....	47
6. III. EMAITZAK: JARDUKETA NEURRI BAKOITZAREN GARAPENAREN INFORMAZIO XEHEA .53	
6.1. 2021 ETA 2022. URTEETAN EZARRI DIREN 2020KO I. PLAN OPERATIBOAN AURREIKUSITAKO NEURRIAK	54
6.2 2021 ETA 2022. URTEETAN EZARRI DIREN 2025KO II. PLAN OPERATIBOAN AURREIKUSITAKO NEURRIAK	65
6.3 II PLAN OPERATIBOAN 2021 ETA2022AN AURREIKUSITA EZ DAUDEN NEURRI BERRIAK	143
7. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK	148

7.1 2020ko I. Plan Operatiboan jasotako neurriak.....	148
7.2 2025eko II Plan Operatiboan jasotako neurriak.....	149
8. ERANSKINA: EMAITZEN TAULAK.....	151

1. AURKEZPENA

Jarraian, Euskadiko soldata-arrakala murrizteko 2030 Estrategiaren eta 2020 eta 2025 Ekintza Plan Operatiboan bitartez abian jarritako neurrien eta jarduketan jarraipen-txostena aurkezten da, 2021ean eta 2022an zehar egindako jarduerari buruzkoa.

Aipatutako estrategiak eta bi plan horiek Eusko Jaurlaritzaren lehentasunezko helburua betetzen dute: “soldata-berdintasunean aurrera egiteko neurri ekonomikoak eta sozialak sustatzea, enpresetan soldata-gardentasuna sustatzea, eta soldata-diskriminazioari aurre egitea” emakumeen eta gizonen artean. Izan ere, helburu horrek emakumeen ahalduztzeari eta autonomia ekonomiko handiagoari ekarpena egiteaz gain, hazkunde ekonomikoa, produktibitatearen igoera eta bizitza familiarren, pertsonalaren eta lanekoaren kontziliazio erantzunkidea sustatzen ditu.

Soldata-arrakalaren aurka egitea justizia sozialarekiko konpromisoa da. Arazo konplexua da, egiturazkoa, eta askotariko arrazoietan du jatorria. Hortaz, mota guztietako neurriak aplikatu behar dira esku hartzen duten askotariko faktoreak hainbat dimentsiotatik jorratzeko, eta beharrezkoa da eragiten dien eragile guztien eta gizarte osoaren inplikazioa eta konpromisoa izatea. Halaber, gizonen eta emakumeen arteko soldata-desberdintasunekin amaitzeak onurak dakartza, bai ekonomian, bai gizartean oro har.

Estrategia horren barruan dagoen Gobernantza Ereduaren helburua da Estrategiaren jarraibideen eta bi Ekintza Plan Operatiboan aurreikusitako neurrien gaineko monitorizazioa eta etengabeko jarraipena egitea. Ahalik eta gardentasunik handiena bermatzeko eta herritarrek zein eragile sozial eta ekonomikoek helburuen irismenaren bilakaeraren berri izateko, urtero Estrategian eta bi Plan Operatiboetan aurreikusitako neurrien ezarpen mailaren berri ematen da (I: Plan Operatiboaren barruan 2019-2021 aldirako ekintzak daude jasota, eta II. Plan Operatiboan 2021-2025 aldirako ekintzak).

Zehazki, txosten honen irudiak 2021 eta 2022 urteetarako Plan Operatibo horietan aurreikusitako neurri guztien ezarpen-mailaren berri ematen du. Halaber, urte hauetan zehar inplikaturako hainbat sailek eta organismo autonomoek abian jarritako neurri bakoitzaren garapenari buruzko informazio kuantitatibo eta kualitatibo xehea aurkeztuko da.

Informazio-bilketaren helburua izan da sail arduradunek neurri horiek ezartzea erraztu eta oztopatzen duten faktoreei buruzko gogoeta egitea eta datozen urteetarako jarduketa bidera dezaketen gomendioak identifikatzea. Txosten honek aukera emango du Estrategiaren eta bi Ekintza Plan Operatiboan jarraibideen eta ekintzen egokitzapen-maila eta egiten duten ekarpena aztertzeke, baita emaitzen eraginkortasunari dagokionez duten betetze maila aztertzeke ere.

Txostena hainbat ataletan egituratuta dago:

- Lehen bi ataletan ebaluatu diren bi Plan Operatiboak testuinguruan jarri eta jarraitutako prozesu metodologikoaren berri ematen da.
- Lanaren emaitzak hurrengo hiru ataletan jaso dira: lehenengoak neurrien ezarpen-mailari buruzko ikuspegi bateratua eskaintzen du, datuen askotariko irakurketak egin ahal izateko hainbat irizpidetatik abiatuta (ardatza, jarraibidea, sail arduraduna...); hurrengoak, Euskadiko soldata-arrakalaren testuinguruarekin zerikusia duten datu kuantitatiboak eskaintzen ditu eta, hein batean, Plan Operatiboek planteatzen dituzten neurrien emaitzen berri ematen du (Estrategian aurreikusitako ebaluazio- eta jarraipen-adierazleak). Halaber, Estrategia betetzeko egin diren aurrerapenak monitorizatzeko aukera ematen du. Hirugarrenak, 2021 eta 2022 urteetarako aurreikusitako analisiaren xede-neurri bakoitzaren informazio xehea eskaintzen du, eta lotura duen Estrategiaren ardatzaren arabera daude ordenatuta.
- Azkenik, aurreko emaitza horietatik eratorritako ondorioen eta gomendioen atala gehitu da.

2. ERREFERENTZIA ESPARRUA: EUSKADIN SOLDATA ARRAKALA MURRIZTEKO ESTRATEGIA ETA PLAN OPERATIBOA.

Soldata-arrakala gure gizartean oraindik indarrean dauden emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunen ondoriozko larrikeria bat da eta, era berean, desberdintasun hori betikotzen duen faktoreetako bat. Arazo horri erantzutea justizia sozial kontua da, baina gainera, emakumeen eta gizonen arteko soldata-desberdintasuna desagerrarazteak onurak ekarriko ditu ekonomiarentzat eta, oro har, gizartearentzat. Izan ere, emakumeen ahalduntzeari eta autonomia ekonomiko handiagoari ekarpena egiteaz gain, hazkunde ekonomikoan, produktibitatearen hazkundera eta bizitza familiarraren, pertsonalaren eta lanekoaren kontziliazio erantzunkidean ere eragina du.

2018ko azaroaren 27ko Gobernu Kontseiluak Euskadin Soldata Arrakala Murrizteko Estrategia eta Plan Operatiboak onartu zituen. Estrategia horren helburua da 2030erako, Euskadi soldata-arrakalarik txikiena duten Europako herrialdeen artean egotea. Halaber, epe ertain eta luzeko (2020, 2025 eta 2030) Plan Operatiboak egitea zehaztu zen, helburu espezifikoekin eta gizonen eta emakumeen arteko soldata-berdintasun handigoa lortzera bideratutako neurriekin.

Zer da soldata-arrakala?

Euskadin Soldata Arrakala murrizteko Estrategian jasotakoaren arabera, emakumeen eta gizonen arteko balio bereko lan bategatik SOLDATA DISKRIMINAZIOARIK EZ egotea edo ORDAINSARI BERBERA IZATEA Europar Batasunaren Funtzionamendurako Itunean berariaz jasota dagoen eskubidea eta printzipioa da, eta Europako araudiak ez ezik, nazioarteko, estatuko eta Euskal Autonomia Erkidegoko arauak ere babesten dute.

Halaber, definizio honetan zehaztu beharreko bi kontzeptu ageri dira:

- A. **ORDAINSARIA** da oinarritzko edo gutxieneko soldata arrunta eta zuzenean edo zeharka, dirutan edo gauzak, enpresariak lan-harremana dela eta langileari ordaindutako bestelako haboroekin (Amsterdamgo Itunaren 141. art.).
- B. **LAN BERTINA EDO BALIO BERTINA DUEN LANA** kontzeptua lehen aldiz jaso zen arau batean 1951ko NLEren 100. Hitzarmenean, balio bertina duen lan bat egiteagatik gizonen lan-eskuaren eta emakumeenaren ordainsari-berdintasunari buruzkoan.

Balio bertina duten lanak zer diren definitzen duen xedapen legalik ez dagoen arren, balio bertina duten lanak dira gaitasun berdinean batzuk dituztenak (ezagutzak, trebetasuna eta ekimena), ahalegin bera eskatzen dutenak (fisikoa, burukoa eta emozionala), erantzukizun berdinean dituztenak (arduraduna edo pertsonen ikuskatzailea, baliabide materialen eta informazioaren segurtasunaren gainekoa eta pertsonen segurtasunaren eta ongizatearen gainekoa) eta lan-baldintza berdinean dituztenak.

SOLDATA DISKRIMINAZIOA:

Zuzena: Pertsona batek beste batek baino gutxiago kobratzen du balio bereko lanean egindako ordu bakoitzeko. Bere egoera antzekoan dagoen pertsona bat baino okerrago tratatzen duten

egoera hori debekatuta dago berariaz (2006/54 Zuzentarauaren 2.a. Artikulua) Europar Batasuneko herrialde guztietan. Gizonen eta emakumeen artean balio bereko lanarengatik ordainsari berdina jasotzeko betebeharra Europar Batasunean eta Espainiar Estatuan finkatuta dagoen legezko printzipioa da (75/117 zuzentzarua eta Espainiako Auzitegi Konstituzioaren sententziak).

Zeharkakoa: Ustez neutroa den xedapen, irizpide edo jarduketa batek desabantaila jakin batean uztea sexu jakin bateko norbait (2006/54 Zuzentarauaren 2.b artikulua eta 3/2007 Lege Organikoa). Egoera hori sexu jakin bati lotutako osagarriak eta pizgarriak aplikatzeagatik sortzen da, normalean, gizonei lotutakoak.

SOLDATA ARRAKALA

Soldata arrakala lan egindako ordu bakoitzeko: Emakumeen eta gizonen arteko soldata-arrakala da bi sexuetakoa langileek lan egindako ordu bakoitzeko jasotzen duten soldata gordinaren artean dagoen aldea. Adierazle hori ofizialki erabiltzen du Europar Batasunak herrialdeen arteko soldata-arrakala ebaluatzeko (Europar Batasuna 2014. Soldata Arrakalari buruzko Dokumentua).

Soldata Arrakala guztira: Gizonek eta emakumeek urtean dituzten irabazi guztien artean dagoen aldea. Hau da, ordu bakoitzeko diru-sarrera gordinaren batez besteko aldea, gehi gizonen eta emakumeen ordaindutako lanaren ordu-kopuru gutxiagoengatik dagoen aldea. Soldata arrakala guztira = Soldata arrakala lan egindako ordu bakoitzeko + Soldata arrakala lan egindako ordu gutxiagoengatik.

Zer faktore daude arrakala horrekin lotuta?

Soldata-arrakalak edo gizonen eta emakumeen jasotzen dituzten ordainsarietako aldeak zenbait genero-faktoreekin eta elementu soziokulturalekin du zerikusia. Faktore horiek gizonen eta emakumeen enpleguarekin duten harremana markatzen dute, eta esparru ekonomikora bideratzen da emakumeek eta gizonen gizartean duten oso bestelako kokapen hori. Hala, hauek dira desberdintasun horietan eragina duten faktoreak:

- Emakumeek lan egindako ordu bakoitzeko ordainsari txikiagoan eragina duten faktoreak hauek dira: soldata-diskriminazio zuzena; sektorearen eta okupazioaren araberako bereizketa eta bereizketa bertikala edo kristalezko sabaia.
- Lan produktiboari eskainitako ordu-kopuru txikiagoan eragina duten faktoreak hauek dira: laneko iruzurra, zaintza-lanetan erantzukidetasunik ez izatea eta emakumeen jardueraren tasa baxua.

Zertan datza 2030 Estrategiak?

Estrategia horren helburua da 2030ean Euskadiko lan-merkatuan soldata-arrakalarik ez egotea, soldata-arrakalarik txikiena duten Europako herrialdeen artean egotea eta ordainsarien berdintasunarekin erabat konprometituta dagoen gizartea izatea (herritarrak eta eragile instituzionalak, sozialak eta ekonomikoak). Horretarako, beharrezkoa da berdintasunean oinarritutako heziketa izatea eta jokabide sozialak garatutako berdintasun-balioekin bat etortzea.

Ikuspegi hori lortzeko hainbat helburu planteatzen dira epe labur, ertain eta luzera:

Elementua	Epe labur / ertaineko helburuak		Epe luzeko helburuak (Estrategia 2030)
	I. Plan Operatiboa 2020	II. Plan Operatiboa 2025	
Soldata-arrakala (emaitza orokorra)	- Soldata-arrakala zuzena murriztea. - Zeharkako soldata-arrakala murrizten duten neurriak abian jartzea.	- Soldata diskriminazio zuzena erabat murriztea. - Zeharkako soldata-arrakala erabat murriztea.	- Soldata diskriminazio zuzena erabat murriztea. - Zeharkako soldata-arrakala erabat murriztea.
Soldata-gardentasuna	- Gure lan-merkatuan soldata-gardentasuna ezartzeko mekanismoak abian jartzea. - Enpresarik handienetan gardentasuna lortzea.	- Gure lan-merkatuan soldata-gardentasuna ezartzeko mekanismoak aplikatu eta zabaltzea. - Ordainsarien gardentasuna bermatzea 50 langile baino gehiagoko enpresetan	Gardentasuna Euskadiko enpresa guztietara zabaltzea, tamaina edozein dela ere.
Kontziliazio erantzunkidea	- Jarduketa onen balioa nabarmentzea eta zabaltzea - Kontziliazio erantzunkidearen formula berriak esperimentatzen dituzte proiektu pilotuak abian jartzeko apustua babestea, batez ere sektorerik tradizionalenetan edo hasiera batean errazagoa dirudienetan. - Zaintzen arloko erantzunkidetasunaren kultura arlo guztietan (hezkuntzan, aisialdian eta denbora librean, lanean...) eta modu koordinatuan lantzen jarraitzeko oinarriak finkatzea.	- Jarduketa onen balioa nabarmentzen eta zabaltzen jarraitzea - Zaintzen arloan benetako erantzukizun soziala sustatzea, gizonak, erakunde publikoak eta enpresak hein handiagoan inplika daitezzen, enpleguan emakumeek eta gizonek baldintza berdinetan parte har dezaten lortzeko. - Zaintzen arloko erantzunkidetasunaren kultura arlo guztietan (hezkuntzan, aisialdian eta denbora librean, lanean...) eta modu koordinatuan lantzen jarraitzea.	- Kontziliazio-neurriak Euskadiko enpresa gehienetara zabaltzea, tamaina eta sektorea edozein izanik ere. - Denboraren erabilerak orekatzeko aurrerapauso esanguratsuak egitea, erantzunkidetasunaren gaineko kontzientzia duen gizartearen gainean eta zaintza-lanen birbanaketa parekidera bideratuta.
Enpleguaren segregazio bertikala	- Eskola orientaziorako eta bokazionalerako mekanismoak sakon berrikustea, etorkizunean enpleguan bereizketa txikiagoa egon dadin. - Emakumeak tradizionalki maskulinizatuta egon diren sektore eta lanbideetara sar daitezzen sustatzeko proiektu pilotuak ezartzea. - Emakumeek erabakitzeke arloetan eta zuzendaritzan duten presentzia eta eragina handitzea.	- Eskola-orientaziorako eta orientazio bokazionalerako mekanismoak hobetzen jarraitzea, askatasunetik eta genero-baldintzarik gabe, etorkizunean enpleguen segregazio txikiagoa izateko oinarriak finkatzeko. - Emakumeak tradizionalki maskulinizatuta egon diren sektore eta lanbideetara sar daitezzen sustatzea. - Emakumeek erabakitzeke arloetan eta zuzendaritzan duten presentzia eta eragina handitzea.	- Lanbide heziketan eta unibertsitatean okupazioaren bereizketa nabarmen murriztu dadin lortzea, enplegura sartzeko desberdintasunak murriztu ahal izateko funtsezko oinarri gisa. - Emakumeen presentzia orekatua lortzea erabakiak hartzen diren arloetan eta zuzendaritzan, bai arlo pribatuan, bai publikoan.
Gizarte-kontzientziazioa	Gizarte osoa, eta zehazki enpresen eta sindikatuen arloa, kontzientziaztea soldata-	Gizarte osoa, eta zehazki enpresen eta sindikatuen arloa, kontzientziaztea jarraitzea	Soldata-arrakalaren aurkako borroka erabat txertatuta izatea helburu sozial gisa. Izan ere,

	arrakala murrizteko erronka jorratzeko beharraz, eragile adierazgarri guztien adostasuna eta konpromisoa lortuz. Antolaketa- eta enpresa-kultura lerrokatzea, berdintasuna balio sozial gisa aitor dadin, eta zaintza bizitzari eusteko ezinbesteko baldintzat eta ekonomiaren eta gizarte-antolaketaren elementu nagusizat har dadin.	soldata-arrakala murrizteko erronka jorratzeko beharraz, eragile adierazgarri guztien adostasuna eta konpromisoa lortuz. Antolaketa- eta enpresa-kultura lerrokatzeko aurrerapausoak egiten jarraitzea, berdintasuna balio sozial gisa aitor dezan, eta zaintza bizitzari eusteko ezinbesteko baldintzat eta ekonomiaren eta gizarte-antolaketaren elementu nagusizat har dezan.	aurrerapausoak egin diren arren, ezinbestekoa da epe luzera begira lanean jarraitzea. - Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako planak txertatuta izatea enpresetan. - Kontziliazio erantzunkiderako planak txertatuta izatea enpresetan.
--	---	---	--

Ezarritako helburuak betetzeko, **Estrategia 4 jarduketa-ardatzetan** dago artikulatuta, eta elkar indartuko dira. Ardatz horien xedea da emakumeen eta gizonen arteko soldata-arrakala murrizteko konpromisoa islatzea. Era berean, ardatz bakoitzak hainbat jarraibide (orientazio estrategikoak) barne hartzen ditu, soldata-arrakalaren aurka egiteko Estrategian definitutako helburuak betetzeko:

- 1. ardatza: **Soldata/orduaren desberdintasuna murriztea** (5 jarraibide)
- 2. ardatza: **lanaldiari dagokionez dagoen desberdintasuna murriztea** (7 jarraibide)
- 3. ardatza: **Hezkuntza eta gizarte-sentsibilizazioa** (4 jarraibide)
- 4. ardatza: **Enpresen eta sindikatuen sentsibilizazioa** (4 jarraibide).

ARDATZAK	BETE NAHI DITUEN HELBURUAK
E1. SOLDATA/ORDUA DESBERDINTASUNA MURRIZTEA	Emakumeek lan egindako ordu bakoitzeko ordainsari txikiagoa jasotzeko pertzepzioan eragina duten faktoreen gainean jardutea, eta zehazki: - Soldata-diskriminazio zuzena desagerraraztea, bai informazio- eta sentsibilizazio-neurrien bidez, bai beharrezkoak diren ikuskapen-, kontrol- eta zigor-neurrien bidez. Horretarako, enpresak eta langileak erabat kontziente izan behar dira sexuagatik lan-diskriminaziorik ez pairatzeko duten eskubideaz. - Okupazioaren bereizketa murriztea, Euskadiko gazteen hezkuntza- eta lan-ibilbideen aukeraketan parekidetasun handiagoa lortuz batez ere. - Emakumeek erabakitze arloetan eta zuzendaritzan duten presentzia eta eragina handitzea.
E2. LANALDIARI DAGOKIONEZ DAGOEN ARRAKALA MURRIZTEA	Emakumeek lan produktiboan ordu gutxiago ematearen gainean eragiten duten faktoreetan jardutea. Izan ere, horren ondorioz ordainsari txikiagoak dituzte. Zehazki, honen gainean: - Gizartea sentsibilizatzea, bereziki gizonak, erantzunkidetasun handiagoa lortzeko aurrerapausoak egiteari buruz, eta egun denboraren erabileran dagoen arrakala murriztea. - Euskadiko enpresa-ehundurak gizonen eta emakumeen berdintasunarekin eta kudeaketa aurreratuarekin duen konpromisoa sustatzea, emakumeek lan-merkatuan erabateko parte-hartzea izan dezaten ahalbidetzeko funtsezko elementu gisa. - Besteak beste, lanaldi partzialek edo epe jakin bateko kontratuek soldata-berdintasunean duten inpaktua murriztea.
E3. HEZIKETA ETA SENTSIBILIZAZIO SOZIALA	- Administrazioen eta sektore publikoaren trakzio-bultzada baliatzea soldata-arrakala murrizten laguntzeko zuzeneko edo zeharkako neurriak sustatzeko. - Soldata-arrakalaren aurka abian jarritako neurrien ezarpena monitorizatzea, eta ikerketarako arlo indartsua gehitzea, neurri horien inpaktua ebaluatu ahal izateko eta lan-ildo berriak abian jartzeko. Aldi berean, Euskadiko gizartea sentsibilizatu behar da desberdintasunen eta soldata-arrakalaren gaineko arazoaz.
E4. ENPRESEN ETA SINDIKATUEN SENTSIBILIZAZIOA	Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna erabat txertatzea Euskadiko enpresen estrategian, talentuaren garrantzia eta guztiok (emakume zein gizon) enpresa lehiakorragoak eta sozialki arduratsuagoak sortzeko egin dezakegun ekarpena nabarmentzeko eta sustatzeko.

Zer da 2020ko Ekintza Plan Operatiboa? 2020ko I. Plan Operatiboko zer neurri ebaluatuko dira txosten honetan?

Zehazki, 2020ko I. Plan Operatiboak 54 neurri zituen guztira eta 2020ko jarraipen- eta ebaluazio-prozesuan 4 ekintza berri gehitu ziren. Aipatutako 58 ekintzetatik, jarraipen- eta ebaluazio-txosten honetan 10 neurri aztertu dira. Neurri horiek 2021ean eta/edo 2022an garatzea zegoen aurreikusita.

10 neurri horiek hurrengo koadroan daude jasota:

ARDATZAK	SAILA	NEURRI KOPURUA
2. ARDATZA: Lanaldiari dagokionez dagoen arrakala murriztea	BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKA	7
3. ARDATZA. Hezkuntza eta Gizarte Sentsibilizazioa	LANA ETA ENPLEGUA	1
4. ARDATZA. Enpresen eta sindikatuen sentsibilizazioa	EKONOMIA ETA OGASUNA EMAKUNDE	1 1
	GUZTIRA	10

3 sail eta Eusko Jaurlaritzaren organismo autonomo 1 arduratzen dira bere garapenez¹: Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika; Ekonomia eta ogasuna; Lana eta Enplegua; eta Emakunde.

Gainera, Estrategiaren barruan Emakumeak Industrian Sartzeko Plana sustatzeko neurri espezifikoak daude. 2020ko I. Plan Operatiboaren barruan dauden eta txosten honen analisiaren xede diren 10 neurritik 6k erreferentzia egiten diote plan horri.

Ardatza	Neurriaren kodea	Neurria	"Emakumea industrian sartzeko planari" erreferentzia egiten diotenak	Sail arduraduna	2021eko xede-analisia	2022ko xede-analisia
2	2.2.1	Soldata-arrakala murrizteko inaktu zuzena duen kontziliazio erantzunkiderako neurriak hartzen laguntzeko ETE-entzako laguntzak	Bai	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila.	Bai	Bai
2	2.2.2	Enpresen arloan kontziliazio erantzunkiderako neurriak egiaztatze eta ziurtatzeko sistemak sustatzea	Bai	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila.	Bai	Bai
2	2.3.2	Adingabeen zaintzan gizonak gehiago inplika daitezen lortzeko gurasotasun positibotako programak	Ez	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila.	Bai	Bai
2	2.7.1	Bizitza pertsonalaren, familiakoaren eta lanekoaren kontziliazio erantzunkiderako laguntzak, hiru urteko adingabeak zaintzeko langileak kontratatze	Bai	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila.	Bai	Bai
2	2.7.2	Kontziliazio erantzunkiderako laguntza-zerbitzuak sortzeko azterketak eta inbertsioak egiteko laguntza ekonomikoak	Bai	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila.	Bai	Bai
2	2.7.3	Denbora soziala modu egokiagoan eta erantzunkidean antolatze dirulaguntzak	Bai	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila.	Bai	Bai
2	2.7.5	Adingabeen zaintzan gizonak gehiago inplikatzeko programak	Bai	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila.	Bai	Bai

¹ 18/2020 Dekretua, irailaren 6koa, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun arloak finkatzen dituenak berregituratu zuen Eusko Jaurlaritzaren sailen osaketa.

Ardatza	Neurriaren kodea	Neurria	"Emakumea industrian sartzeko planari" erreferentzia egiten diotenak	Sail arduraduna	2021eko xede-analisia	2022ko xede-analisia
3	3.2.7	Laneko segurtasunaren eta osasunaren euskal estrategian genero-ikuspegia txertatzeko plana diseinatzea	Ez	Lan eta Enplegu Saila	Bai	Ez
4	4.4.4.	Ordainsarien berdintasunaren jarraibideari eta bere aplikazioari buruzko ezagutza sustatzea.	Ez	Ekonomia eta Ogasun Saila	Bai	Bai
4	4.1.16	EAE-ko emakumeen eta gizonen berdintasunerako erakunde laguntzaileen sarearen koordinazioa, laguntza eta jarraipena egitea.	Ez	Emakunde	Bai	Bai

Zer da 2025eko Ekintza Plan Operatiboa? 2025eko II. Plan Operatiboko zer neurri ebaluatuko dira txosten honetan?

2025eko II. Plan Operatiboak 74 neurri ditu guztira eta aurreikusita zegoen gutxienez 71 2021ean eta/edo 2022an hasia, eta hurrengo urteetan jarraitzea.

8 sail eta Eusko Jaurlaritzaren organismo autonomo 1 arduratzen dira neurri horien garapenez²: Garapen Ekonomikoa, Jasangarritasuna eta Ingurumena; Hezkuntza; Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politika; Osasuna, Osakidetzaren bitartez; Ekonomia eta Ogasuna; Gobernantza Publikoa eta Autogobernua; Lana eta Enplegua; Lehendakaritza eta Emakunde.

ARDATZAK	SAILA	NEURRI KOPURUA
1. ARDATZA Soldata/ordua desberdintasuna murriztea	LANA ETA ENPLEGUA HEZKUNTZA EKONOMIAREN GARAPENA, JASANGARRITASUNA ETA INGURUMENA GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA EMAKUNDE OSASUNA-OSAKIDETZA	8 4 2 1 1 1
	GUZTIRA	17
2. ARDATZA Lanaldiari dagokionez desberdintasuna murriztea	LANA ETA ENPLEGUA BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKA EMAKUNDE HEZKUNTZA GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA OSASUNA-OSAKIDETZA	3 14 1 3 1 1
	GUZTIRA	23
3. ARDATZA Hezkuntza eta gizarte-sentsibilizazioa	EKONOMIA ETA OGASUNA EMAKUNDE HEZKUNTZA LEHENDAKARITZA GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA LANA ETA ENPLEGUA OSASUNA-OSAKIDETZA	1 3 3 1 2 2 1
	GUZTIRA	13
4. ARDATZA Enpresen eta sindikatuen sentsibilizazioa	LANA ETA ENPLEGUA EMAKUNDE EKONOMIAREN GARAPENA, JASANGARRITASUNA ETA INGURUMENA EKONOMIA ETA OGASUNA OSASUNA-OSAKIDETZA	5 8 1 2 2
	GUZTIRA	18

Estrategiaren barruan Emakumea Industrian Sartzeko Plana sustatzeko neurriak daude, zehazki, 2021 eta 2022rako II. Ekintza Planean jasotako 71 neurrietatik 23k erreferentzia egiten diote plan horri. Jarraian ageri den taulak 2025eko II. Plan Operatiboaren neurri bakoitzaren sailkapen

² 18/2020 Dekretua, irailaren 6koa, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun arloak finkatzen dituenak berregituratu zuen Eusko Jaurlaritzaren sailen osaketa.

xehea jasotzen du, honen arabera: dagokien ardatza, Emakumea Industrian Sartzeko Planaren erreferentzia eta sail arduraduna.

Ardatza	Neurriaren kodea	Neurria	“Emakumea industrian sartzeko planari” erreferentzia egiten diotenak	Sail arduraduna	Xede-analisia	
					2021	2022
1	1.1.1	Ordainsarien berdintasunerako lan-ikuskaritzaren plan espezifikoa, soldaten auditoretzarako sistema abian jartzearekin batera.	Ez	Lan eta Enplegu Saila	Bai	Bai
1	1.1.2	Ikuskapeneko langileentzako prestakuntza-programa espezifikoa	Ez	Lan eta Enplegu Saila	Bai	Bai
1	1.2.1	Balizko soldata-diskriminazioen berri emateko postontzi birtuala	Ez	Lan eta Enplegu Saila	Bai	Bai
1	1.2.2	Sexuagatik soldata-diskriminaziorik ez jasateko eskubideari buruzko sentsibilizazio- eta informazio-kanpainak	Ez	Lan eta Enplegu Saila	Bai	Bai
1	1.2.3	Berdintasun-eskubideen defentsa	Ez	Emakunde	Bai	Bai
1	1.3.1	Orientazio bokazional ez sexistari buruzko prestakuntza espezifikoa hezkuntzako orientatzaileentzat	Bai	Hezkuntza Saila	Ez	Bai
1	1.3.2	Prestakuntza profesionalari eta enpleguari buruzko sentsibilizazioa, tradizionalki maskulinizatuta eta feminizatuta egon diren adar profesionalentzat	Bai	Hezkuntza Saila	Ez	Bai
1	1.3.3	Lanbide Heziketako ikastegi bateratuetan egindako emakumeen eta gizonen berdintasunaren sustapena	Bai	Hezkuntza Saila	Bai	Bai
1	1.4.1	Tradizionalki maskulinizatuta egon diren lanbideetara emakumeak sar daitezen sustatzeko Euskadiko enpresa eragileek duten konpromisoa.	Bai	Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila.	Bai	Bai
1	1.4.2	Bokazio zientifiko-teknikoen eta aspirazio profesionalen sustapena, Steam Euskadi Hezkuntza Estrategia	Bai	Hezkuntza Saila	Bai	Bai
1	1.4.3	Langabezian dauden emakumeak maskulinizatutako lanbideetan kontratatzeke eta prestakuntza eskaintzeko proiektuei bideratutako dirulaguntzak	Bai	Lan eta Enplegu Saila	Bai	Bai
1	1.4.4	Landa- eta hiri-eremuan emakumei laguntzeko programa	Ez	Lan eta Enplegu Saila	Bai	Bai
1	1.4.5	Lan-bitartekaritza ez sexista	Ez	Lan eta Enplegu Saila	Bai	Bai
1	1.5.1	Emakumeek EAEko industria enpresen zuzendaritza-postuetan eta administrazio-batzordeetan duten presentzia handitzeko ekintzak	Bai	Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila.	Bai	Bai
1	1.5.2	Emakumeek sektore publikoko zuzendaritza-postuetan eta administrazio-batzordeetan duten presentziari buruzko azterketa	Bai	Gobernantza Publikoaren eta Autogobernuaren Saila	Ez	Bai
1	1.5.3	Emakumeen ekintzailetzaren sustapena eta emakumeen talentua enpresen eta erakundeen zuzendaritza-organoetan txertatzea	Bai	Lan eta Enplegu Saila	Bai	Bai
1	1.5.4	Osakidetzako edozein agente-postutan emakumeen presentzia handiagoa lortzeko neurriak sustatzea	Ez	Osakidetzako Osasun Saila	Bai	Bai
2	2.1.1	Emakumeen kolektiboaren lan-kontratazioarako modalitatei buruzko lan-ikuskaritzaren plan espezifikoa	Ez	Lan eta Enplegu Saila	Bai	Bai

Ardatza	Neurriaren kodea	Neurria	“Emakumea industrian sartzeko planari” erreferentzia egiten diotenak	Sail arduraduna	Xede-analisia	
					2021	2022
2	2.2.1	Bizitza pertsonalaren, familiakoaren eta lanekoaren kontziliazio erantzunkiderako neurriak ezartzeko enpresentzako dirulaguntzak	Bai	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila.	Ez	Bai
2	2.2.2	Kontziliazio erantzunkidea sustatzen duten enpresen egiaztigiri eta ziurtagiri sistemak sustatzea	Bai	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila.	Bai	Bai
2	2.3.1	Adingabeen zaintzan gizonak gehiago inplika daitezen lortzeko gurasotasun positibotako programak	Ez	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila.	Bai	Bai
2	2.3.2	Gizonduz programa	Ez	Emakunde	Bai	Bai
2	2.3.3	Zaintzen balio sozialaren gaineko sensibilizazioa	Ez	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila.	Bai	Bai
2	2.3.4	Zainlab: Zaintzen arloan eta Silver Economyn enplegu-aukerak eta ekintzailatza definitzeko eta sustatzeko estrategia	Bai	Lan eta Enplegu Saila	Bai	Bai
2	2.3.5	Euskadiko senide zaintzaileen estatutua edo eskubideen gutuna	Ez	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila.	Bai	Bai
2	2.3.6	Zaintza instituzionalen eta familiarren garrantziari eta erantzukidetasunari buruzko sensibilizazioa	Ez	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila.	Bai	Bai
2	2.3.7	Hezkuntzako agenda diseinatzea eta zabaltzea, eta zaintzaren balioen eskola abian jartzea	Ez	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila.	Bai	Bai
2	2.3.8	Gizonek familiarren zaintza beren gain hartzea sustatzeko ekintza positiborako sistemak	Ez	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila.	Bai	Bai
2	2.4.1	Familiek haur-eskola pribatuetarako sarbidea izan dezaten ahalbidetzeko dirulaguntzak	Bai	Hezkuntza Saila	Bai	Bai
2	2.4.2	Familiek udal haur-eskoletarako sarbidea izan dezaten ahalbidetzeko dirulaguntzak	Bai	Hezkuntza Saila	Bai	Bai
2	2.4.3	Familiek haurreskoletarako sarbidea izan dezaten ahalbidetzea	Bai	Hezkuntza Saila	Bai	Ez
2	2.5.1	Telelanaren esperientziak Euskadiko administrazio publikoan izandako inpaktuaren ebaluazioa, egokitapena joratu ahal izateko	Ez	Gobernantza Publikoaren eta Autogobernuaren Saila	Ez	Bai
2	2.5.2	Osakidetzan dauden kontziliazio-neurrien azterketa eta kontziliaziarako lizentzia eta baimen horiek emakumeen eta gizonen artean zein proportziotan banatzen diren	Ez	Osakidetzako Osasun Saila	Bai	Bai
2	2.7.1	Bizitza pertsonalaren, familiakoaren eta lanekoaren kontziliazio erantzunkiderako laguntzak, 14 urteko adingabeak zaintzeko langileak kontratatuzko	Bai	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila.	Ez	Bai
2	2.7.2	Kontziliazioan laguntzeko dauden hainbat zerbitzuren berri izateko azterketa egitea	Bai	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila.	Ez	Bai
2	2.7.3	Adingabeak eta mendeke pertsonak zaintzeko eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartu duten langileak ordezkatzeko dirulaguntzak	Bai	Lan eta Enplegu Saila	Bai	Bai
2	2.7.4	Arlo pribatuan aitatasun-baimenak parekatzeko laguntza	Bai	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila.	Bai	Bai
2	2.7.5	Zaintzaileak zaintzeko eredu prediktiboak	Ez	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila.	Bai	Bai

Ardatza	Neurriaren kodea	Neurria	“Emakumea industrian sartzeko planari” erreferentzia egiten diotenak	Sail arduraduna	Xede-analisia	
					2021	2022
2	2.7.6	Adineko pertsonen edo mendekotasuna dutenen arretarako atsedenen aldagaiak sustatzea	Bai	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila.	Bai	Bai
2	2.7.7	Zaintzaren egoera desagokiak eta/edo gehiegizko karga jorrazteko zerbitzuak edo jarduerak sustatzea	Ez	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila.	Bai	Bai
3	3.1.1	Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikastetxe publiko eta itunpekoen hezkidetzak-planak egin ditzaten sustatzea	Ez	Hezkuntza Saila	Bai	Bai
3	3.1.2	II. Hezkidetzak Plana ezartzea eta horren jarraipena eta ebaluazioa egitea	Ez	Hezkuntza Saila	Bai	Bai
3	3.1.3	Irakasleen etengabeko prestakuntza hezkidetzak-ereduei dagokienez	Ez	Hezkuntza Saila	Bai	Bai
3	3.1.4	Nahiko programa	Ez	Emakunde	Bai	Bai
3	3.2.2	Ordainsarien maila bakoitzeko soldata-arrakalen eragina duten faktoreak identifikatzea eta arrakala % 5ekoa baino altuagoa den kategoria guztietan arrakala hori murriztera bideratutako neurriak garatzea	Ez	Osasun Saila - Osakidetzak	Ez	Bai
3	3.2.3	Eusko Jaurlaritzako Administrazio Orokorreko soldata-arrakalaren diagnostikoa	Ez	Gobernantza Publikoaren eta Autogobernuaren Saila	Ez	Bai
3	3.2.4	Erakunde nagusietan, organismo autonomoetan eta EAEko enpresa publikoetan dagoen soldata-arrakalaren diagnostikoa	Ez	Gobernantza Publikoaren eta Autogobernuaren Saila	Ez	Bai
3	3.2.5	Euskadiko enpresetan “Balio bereko lana” gida erabiltzeko proiektu pilotua	Ez	Lan eta Enplegu Saila	Ez	Bai
3	3.2.6	Enpleguaren politika aktiboetan genero-ikuspegia txertatzeko plana diseinatu eta ezartzea	Ez	Lan eta Enplegu Saila	Ez	Bai
3	3.3.1	Soldata-arrakalaren murrizketan izandako aurrerapena neurtzeko jarraipen-jarduketak	Ez	Emakunde	Bai	Bai
	3.3.2	Soldata-arrakalaren aurkako planaren neurri espezifikoaren aurrekontuaren jarraipena	Ez	Ekonomia eta Ogasun Saila	Bai	Bai
3	3.4.1	Soldata-arrakala ezabatze/murrizteko erronkari dagokionez sentsibilizazio sozialerako dauden jarduketak	Ez	Emakunde	Bai	Bai
3	3.4.2	Ordainsarien berdintasunaren arloan jarduketak onak ezartzeko eta dibulgatzeko nazioarteko ekintza sustatzea	Ez	Lehendakaritza	Ez	Bai
4	4.1.1	Berdintasunaren arloan eragile sozialak prestatzeko eta gaitzeko programa	Ez	Lan eta Enplegu Saila	Bai	Bai
4	4.1.2	Enpresa ertain eta txikietan berdintasun-planak egiteko laguntza ekonomikoak	Bai	Emakunde	Bai	Bai
4	4.1.3	Sistematizazio eta gardentasun handiagoa enpresetako hautaketa, sustapen eta lanpostuen balorazio prozesuetan, elkarriketa sozialaren bitartez.	Bai	Lan eta Enplegu Saila	Bai	Bai
4	4.1.4	Hitzarmen kolektiboetako genero-inpaktuaren txostenak	Ez	Lan eta Enplegu Saila	Bai	Bai
4	4.1.5	EAE-ko emakumeen eta gizonen berdintasunerako erakunde laguntzaileen BAI SAREaren kudeaketa.	Ez	Emakunde	Bai	Bai
4	4.1.6	Elkarriketa sozialeko mahaiaren genero-berdintasuneko lantaldearen presidentziatik eratorritako jarduketak	Ez	Emakunde	Bai	Bai

Ardatza	Neurriaren kodea	Neurria	“Emakumea industrian sartzeko planari” erreferentzia egiten diotenak	Sail arduraduna	Xede-analisia	
					2021	2022
4	4.1.7	Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko enpresentzako arreta- eta aholkularitza-zerbitzua	Ez	Emakunde	Bai	Bai
4	4.1.8	Emakumeen eta gizonen berdintasunerako erakunde laguntzaile gisa aitortzea	Ez	Emakunde	Bai	Bai
4	4.1.9	Erakundeen berdintasunerako diagnostikoak eta planak egiteko eta ordainsarien berdintasuna sustatzeko materialak eta prestakuntza-ekintzak egitea eta/edo eguneratzea	Ez	Emakunde	Ez	Bai
4	4.1.10	Berdintasunaren arloko sentsibilizazioa eta prestakuntza Osakidetza Osasun Saila	Ez	Osakidetza Osasun Saila	Ez	Bai
4	4.1.11	Emakumeen eta gizonen berdintasunaren sustapena eta ekonomia sozialeko enpresetan txertatzea	Ez	Lan eta Enplegu Saila	Bai	Bai
4	4.1.12	Elkargiren eta Luzaroren bitartez ETE-etan emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak egin ditzaten sustatzea	Ez	Ekonomia eta Ogasun Saila	Ez	Bai
4	4.2.1	Genero-ikuspegia duen kudeaketa aurreratuaren sustapena	Ez	Emakunde	Bai	Bai
4	4.2.2	I+Gko proiektuen ebaluazioan genero-ikuspegia txertatzeko prozesuan sakontzea	Ez	Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila.	Bai	Bai
4	4.3.1	Genero-berdintasuna elkarriketa sozialerako mahaiaren lantalde guztietara zeharka zabaltzea	Bai	Lan eta Enplegu Saila	Bai	Bai
4	4.3.2	Kontratazio publikoetarako erregistroa egokitzea, soldata-arrakalaren aurkako planaren jarraipena eta ebaluazioa sustatzeko	Ez	Ekonomia eta Ogasun Saila	Bai	Bai
4	4.4.2	Kontratuetan, dirulaguntzetan eta hitzarmenetan genero-ikuspegia txerta dadin sustatzea	Ez	Emakunde	Bai	Bai
4	4.4.3	Osakidetza egindako kontratazio publikoetan berdintasun-klausulak txertatzea eta horien jarraipena egitea	Ez	Osasun Saila - Osakidetza	Bai	Bai

Zein da abiapuntua? Lehenengo eta bigarren Plan Operatiboaren artean zein izan da Euskadiko Soldata Arrakalaren bilakaera?

Emakundek egindako Euskadiko Soldata Arrakalaren egoerari buruzko diagnostikoaren (2016) arabera, EAEko langile bakoitzaren urteko batez besteko irabaziak 27.480,71 eurokoak ziren 2016an. Sexuaren arabera, 31.001 eurokoak gizonentzat eta 23.428 eurokoak emakumeentzat. Hortaz, urteko irabaziak kontuan hartzen badira, EAEn % 24,4ko (7.573 €) soldata-arrakala zegoen, 2009an baino 2,3 puntu gehiago (% 22,1).

Bigarren Plan Operatiboaren (2019) diagnostikoan, langile bakoitzeko urteko batez besteko irabazien arabera soldata-arrakala % 14,1ekoa zen eta 2019an % 19,5era jaitsi zen; hortaz, horrek esan nahi du ehuneko 4,9 puntu murriztu zela. Zehazki, emakumeek 26.197,6€ jasotzen dituzte batez beste urtean, eta gizonek 32.529,2€.

Europar, soldata-arrakala lan egindako ordu bakoitzeko batez besteko irabazien arabera neurtzen da eta 2019an % 14,1eko baliora iritsi zen (EB-27). EAEn, urte horretan bertan tasa % 9,5koa izan zen (2016an baino ia 5 puntu gutxiago); hortaz, EAEko egoerak joera positiboa izan du Estrategia eta I. Plan Operatiboa ezarri zirenetik.

2019an, sektorearen eta okupazioaren arabera bereizketak jarraitzen du, eta arrakala handiagoa da zerbitzuen sektorearentzat (% 21,8 urteko irabazien arabera), industriarentzat (% 12,2) eta kualifikazio txikiagoa duten okupazioentzat (% 36,9). Hala ere, iraupen zehatzeko kontratuetak desberdintasunak lehengoratu egin dira. 2016an, aldi baterako kontratuen Soldata Arrakala % 18,3koa zen; aldiz, 2019an, -% 5,3koa da (aldi baterako kontratua duten emakumeek gizonen baino 1.117,2 € gehiago irabazten dituzte batez beste).

Adinaren arabera, 2016an soldata-arrakalak gehiago eragiten zuten 45 eta 54 urte bitarteko emakumeei (% 26,8) eta 55 urtetik gorakoei (% 25,3). Tarte horiek bat egiten dute emakumeak mendekotasuna duten beste pertsona batzuen zaintzaile izaten has daitezkeen adinarekin, eta ugalketarako adinarekin. 2019an, soldata-arrakalak 35 eta 44 urte bitarteko emakumeei eragin zuten batez ere (% 22,6), eta 45 eta 55 urte bitartekoena apur bat murriztu zen arren, esanguratsua da oraindik ere (% 21,8).

Soldatek eta soldaten arteko desberdintasunek eragin zuzena dute pentsioen eskuratzean eta horietan sortzen den genero-arrakalan, bai pentsio-motan, bai batez besteko zenbatekoan. Hala, 2020an, emakume pentsionisten % 53k alarguntasun-pentsioa jaso du (kotizazio gabekoa), 2016an baino % 7 gehiagok. Aldiz, gizon pentsionisten % 96k erretiro-pentsioa jaso du (kotizazio bidezkoa), 2016an baino % 14 gehiagok. Emakumeen kasuan, jasotako pentsio guztien % 47 izan dira erretiro-pentsioak (140.127), 2016an baino % 2 gehiago. Ikuspegi ekonomikotik, 2020an, batez besteko pentsioan izandako desberdintasunik handiena erretiro-pentsioetan izan da, eta % 38,9ra iritsi da (653 €) gizonen alde.

Hala ere, 2020ko I. Plan Operatiboa ezarri zenetik, datuek erakusten dute bilakaera positiboa izan dela soldata-arrakalaren murrizketan, hainbat adierazleri erreparatuz gero; hala nola urteko batez besteko irabaziei, lan egiteko ordu arruntei, sektorearen eta okupazioaren arabera bereizketari, kualifikazio txikiagoa eskatzen duten okupazioei, eta, bereziki, aldi baterako kontratuei.

3. METODOLOGIAREN INGURUKO OHARRAK

Txosten honetan jasotzen diren emaitzen lan-prozesuak hiru fase izan ditu, eta gutxi gorabehera hiru hilabeteko epean garatu dira (2023ko uztaila eta azaroa bitartean). Zehazki, lehen fasean tresnak diseinatu dira, bigarrenetan informazio-bildu eta hirugarrenean dokumentazioa aztertu eta txostena idatzi da.

Hainbat tresna aplikatu dira azterketaren xede-neurriei buruzko informazio kualitatiboa eta kuantitatiboa biltzeko, bigarren mailako iturrien (txostenak, memoriak, datu estatistikoak...) eta lehenengoen bitartez (inplikaturako sailei zuzenean egindako kontsulta, prozesu honetan parte hartzea errazteko galdetegi-fitxa baten bitartez).

Hurrengo taulan daude jasota fase eta garatu den une bakoitzari lotutako ekintzak:

	1. fasea: DISEINUA	2. fasea: INFORMAZIOA BILTzea	3. fasea: AZTERKETA, ONDORIOAK ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK
Zereginak	- Dokumentuen berrikusketa (arau-esparrua, erreferentziak txostenak...). - Informazio biltzeko eta iraultzeko tresnen diseinua: oinarritzko galdetegiak eta iraultzeko datu-baseak. - Taldeko saioa Sailen Arteko Lantaldearekin, prozesuaren berri emateko, zalantzak argitzeko eta datuak biltzeko jarraibideak emateko.	- Bigarren mailako iturriak biltzea eta kontsultatzea: memoriak, txostenak, etab. - Lehen mailako iturri/sail arduradunei neurriei buruz egindako kontsulta (galdetegi/fitxa, jarraipena, motibazioa eta zalantzei erantzutea). - Datu-basean jasotako informazioa iragaztea eta iraultzea.	- Bildutako datuen analisia - Jarraipen-txostena idaztea, hobetzeko orientazioak barne. - Jarraipen-txostenaren tresna osagarria egitea, emaitzen hainbat irakurketa egin ahal izateko: ardatzen eta jarraibideen arabera, eragile arduradunen arabera, arloaren arabera, etab.
Egutegia	2023ko uztaila	2023ko urria	2023ko azaroa

Azkenik, I. Plan Operatiboan 2021 eta/edo 2022rako aurreikusitako 10 neurri buruzko 8 sail eta organismo autonomo bati buruzko informazioa bildu eta baliozkotu da (zehazki, 10 2021ean eta 9 2022an³).

2025eko II. Plan Operatiboaren kasuan, ebaluatu beharreko 71 neurrietatik, azkenean % 95,8ari buruzko informazioa biltzen da⁴ eta datu-bilketan neurri horiek aurrera eramateaz arduratzen diren 8 sail eta organismo autonomok hartu dute parte: Hezkuntza; Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politika; Ekonomia eta Ogasuna; Gobernantza Publikoa eta Autogobernua; Garapen Ekonomikoa, Jasangarritasuna eta Ingurumena; Lana eta Enplegua; Lehendakaritza, Osasuna-Osakidetza eta Emakunde.

³ Batura 10 baino altuagoa da 2021eko neurri batzuk 2022an ere errepikatu direlako.

⁴ Ezin izan da hiru neurri buruzko informazioa eskuratu: Lanbiderekin lotutako Lan eta Enplegu Sailaren 1.4.5 Neurria; Ekonomia Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren 1.5.1 neurria; eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Sailaren 2.3.3 neurria.

4. I. EMAITZAK: JARDUKETA NEURRIEN AURRERAPEN MAILA

Atal honetan, Euskadiko Soldata Arrakala murrizteko 2020ko I. Plan Operatiboak eta 2025eko II. Plan Operatiboak 2021ean eta 2022an izandako **ezarpen- edo betetze-mailaren azterketa** egin da.

Neurri baten ezarpen-maila neurtzeko, kategoria hauek bereizten dituen eskala ezarri da:

- Hasitako neurriak: abian jarri arren konplexutasunagatik edo beste arrazoi batzuengatik baliabideen antolaketa handiagoa edo garapen handiagoa behar duten neurriak dira.
- Partzialki garatutako neurriak: kategoria honetan aintzat hartu dira ehuneko ertain-altuan egindako neurriak. Erabat ez garatzeko arrazoiak askotarikoak izan daitezke: aurrekontua murriztu izana, jarduketa batzuk egokitzea, hainbat urteko jarduketa baten parte izatea...
- Betetako neurriak: gauzatu diren horiek dira. Neurria % 100ean gauzatu da, hau da, 2021 eta/edo 2022rako aurreikusitako guztia egin da.
- Indargabetutako neurriak: neurri horiek abian jartzea baztertu egin da. Hau da, neurria azkenean ez da aurreikusitako urtean gauzatu edo garapena hurrengo ekitaldietara atzeratu da.
- Hasi gabeko neurriak: II. Plan Operatiboan jasota dauden eta 2022 ondoren hastea aurreikusita dagoen neurriak dira.

Neurriak hainbat irizpideren arabera daude sailkatuta, datuen hainbat irakurketa egiteko (ardatza, jarraibidea, sail arduraduna...). Gainera, taula espezifikoak daude Emakumeak Industrian Sartzeko Planari lotutako neurriei buruz.

4.1 2020ko I. Plan Operatiboari buruzko txosten honetan aztertu beharreko neurrien ezarpen-maila

2021ean, **2020ko I. Plan Operatiboan aurreikusitako neurrien % 80 erabat edo partzialki garatu da**, zehazki, % 70 bere osotasunean eta % 10 partzialki. 2022an, **erabat edo partzialki garatu diren 2020ko I. Plan Operatiboan aurreikusitako neurrien** ehunekoa apur bat baxuagoa da eta **% 77,8an dago**. Neurrien % 66,7 aurreikusitako moduan garatu dira eta % 11,1 partzialki.

Indargabetutako neurriei dagokienez, 2022an, % 22,2 murriztu dira eta, aldiz, 2021ean, ehunekoa % 20koa izan da. Hainbat sailetatik jasotako informazioaren arabera, indargabetutako neurrien batez besteko tasa Covid-19aren pandemiaren ondorio da hein batean (lehentasunak aldatu egin zirelako eta bitartekorik ez zegoelako).

Nabarmentzekoa da bai 2021erako, bai 2022rako, garapen-mailarik handiena izan duten tasak hezkuntza eta gizarte-sentsibilizazioari buruzko 3. ardatzak eta sindikatuen sentsibilizazioari buruzko 4.ak izan direla, baina neurri gutxien dituzten ardatzak dira horiek halaber.

Lanaldian dagoen desberdintasuna murriztera bideratutako 2. ardatzak bere 7 neurrien garapen-maila berbera du, bai 2021ean, bai 2022an; izan ere, neurrien % 57,1 erabat garatu dira, % 14,3 partzialki eta % 28,6 indargabetu egin dira.

2021 eta 2022AN JARRAIPENA EGITEKO 2020KO I. PLAN OPERATIBOAN AURREIKUSITAKO NEURRIEN BANAKETA, EZARPEN MAILAREN ETA DAGOKIEN JARDUKETA ARDATZAREN ARABERA Balio absolutuak eta ehunekoak. 2021-2022

ARDATZA	AURREIKUSITAKO NEURRIAK GUZTIRA (KOP.)		HASITAKO NEURRIAK (%)		PARTZIALKI GARATUTAKO NEURRIAK (%)		BETETAKO NEURRIAK (%)		INDARGABETUTAKO NEURRIAK (%)	
	2021	2022	2021	2022	2021	2022	2021	2022	2021	2022
2 Lanaldiari dagokion desberdintasuna murriztea	7	7	0,0	0,0	14,3	14,3	57,1	57,1	28,6	28,6
3 Hezkuntza eta gizarte-sentsibilizazioa	1	0	0,0	--	0,0	--	100,0	--	0,0	--
4 Enpresen eta sindikatuen sentsibilizazioa	2	2	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0	100,0	0,0	0,0
GUZTIRA	10	9	0,0	0,0	10,0	11,1	70,0	66,7	20,0	22,2

Hurrengo taulak erabat bete diren neurrien edo aurrerapen partziala izan dutenen proportzioaren zerrenda ageri da, ardatz bakoitzean eta jarraibide bakoitzari dagokionez.

Bigarren ardatzari dagokionez, 2.7 jarraibidearekin lotutako neurri guztiak (*Kontziliazio erantzunkidea sustatzen duten zerbitzuak eta pizgarri ekonomikoak handitzea, emakumeak lan-merkatutik ateratzea ekiditeko eta haien jarduera-tasa hobetzeko*) erabat edo partzialki bete dira eta neurrien % 50ean 2.2 jarraibidearen kasuan (*Euskal enpresetan kontziliazio erantzunkidearen kultura handiagoa eta jarduketak sustatzea*). 2.3 gidalerroan jasotako neurria (*Herritarrak, eta bereziki gizonak sentsibilizatzea etxeko zereginen eta pertsonen zaintzaren erantzunkidetasunarekiko*) ezin izan da garatu.

Hirugarren ardatzaren kasuan, 3.2 gidalerroa (*Arazoa monitorizatu ahal izateko eta Euskadiko soldata-arrakalan eragina duten faktoreen bilakaeraren jarraipena egiteko ikerketa-dinamika txertatzea*), 2021erako aurreikusitakoa, erabat garatu da.

Azkenik, laugarren ardatzaren barruko 4.1 (*Soldata-arrakalaren aurka zuzenean eta zeharka borroka egiteko neurriak dituzten enpresetan berdintasunerako planak orokortzea*) eta 4.4 jarraibideek (*Kontratazioan klausula sozialak erabiltzea soldata-arrailaren murrizketan aurrera egiteko*) erabat edo partzialki garatu ahal izan dira, bai 2021ean, bai 2022an.

2021-2022AN JARRAIPENA EGITEKO **2020KO I. PLAN OPERATIBOAN** AURREIKUSITAKO NEURRIEN BANAKETA, EZARPEN MAILAREN ETA DAGOKIEN JARRAIBIDEAREN ARABERA Balio absolutuak eta ehunekoak. 2021-2022

ARDATZA ETA JARRAIBIDEA		I. PLANEKO NEURRIAK GUZTIRA (KOP.)		PARTZIALKI GARATUTAKO ETA OSATUTAKO NEURRIAK (%)	
		2021	2022	2021	2022
2 Lanaldiari dagokion desberdintasuna murriztea	2.2 Gidalerroa	2	2	50,0	50,0
	2.3 Gidalerroa	1	1	0,0	0,0
	2.7 Gidalerroa	4	4	100,0	100,0
2. ARDATZAREN GUZTIZKOA		7	7	71,4	71,4
3 Hezkuntza eta gizarte-sentsibilizazioa	3.2 Gidalerroa	1	0	100,0	--
3. ARDATZAREN GUZTIZKOA		1	0	100,0	--
4 Enpresen eta sindikatuaren sentsibilizazioa	4.1 Gidalerroa	1	1	100,0	100,0
	4.4 Gidalerroa	1	1	100,0	100,0
4. ARDATZAREN GUZTIZKOA		2	2	100,0	100,0
GUZTIRA		10	9	80,0	77,8

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Sailak erabat edo partzialki garatu ditu 2021ean eta 2022an aurreikusita zituen ekintzen % 71,4.

Inplikaturako gainerako sail eta organismo autonomoek, hots, Ekonomia eta Ogasun Sailak eta Lan eta Enplegu Sailak eta Emakunde haiei dagozkien ekintzak erabat garatu dituzte.

2021-2022AN JARRAIPENA EGITEKO **2020KO I. PLAN OPERATIBOAN** AURREIKUSITAKO NEURRIEN BANAKETA, EZARPEN MAILAREN ETA SAIL ARDURADUNAREN ARABERA Balio absolutuak eta ehunekoak. 2021-2022

SAILA	I. PLANEAN AURREIKUSITAKO NEURRIAK GUZTIRA (KOP.)		PARTZIALKI GARATUAK (%)		EGINDAKOAK (%)		INDARGABETUAK (%)	
	2021	2022	2021	2022	2021	2022	2021	2022
Ekonomia eta Ogasuna	1	1	0,0	0,0	100,0	100,0	0,0	0,0
Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak	7	7	14,3	14,3	57,1	57,1	28,6	28,6
Lana eta Enplegua	1	0	0,0	--	100,0	--	0,0	--
Emakunde	1	1	0,0	0,0	100,0	100,0	0,0	0,0
GUZTIRA	10	9	10,0	11,1	70,0	66,7	20,0	22,2

4.2 2025eko II. Plan Operatiboan aurreikusitako neurrien ezarpen-maila

Erabat edo partzialki garatu dira 2022ko II. Plan Operatiboan aurreikusitako neurrien % 82,6. Kopuru hori aurreko ekitaldian erregistratutakoa baino baxuagoa da; izan ere, 2021ean, garatutako neurrien kopurua % 90,9koa izan da. Zehazki, 2022an, neurrien % 56,5 gauzatu dira erabat, neurrien % 2,1 partzialki eta % 1,4 hasi egin dira. 2021ean, bestalde, betetako neurrien ehunekoa % 76,4koa izan da, % 14,5 partzialki garatu dira eta % 1,8 hasi.

Indargabetutako neurriak % 1,8 izan dira 2021ean eta % 11,6 2022an, hainbat arrazoiengatik: neurri horien garapena 2023 edo 2024ra atzeratu da, ez dira gauzatu bitartekoen faltarengatik, iraungi egin dira edo ez zaie jarraipenik eman.

Adieraztekoa da hainbat sailek hasieran aurreikusi gabe zeuden 5 neurri gehitu dituztela, 3 2021erako eta 4 2022rako⁵.

Bai 2021ean, bai 2022an, enpresen eta sindikatuen sentsibilizaziorako 4. ardatzak du betetako neurrien kopururik handiena (% 93,3 eta % 76,5, hurrenez hurren, 2021eko 15 neurrietatik eta 2022ko 17etatik). Aldiz, soldata/ordua desberdintasuna murrizteari buruzko 1 ardatz estrategikoa da ezarpen-mailarik txikiena lortu duena (2021eko 14 neurrien % 64,3 eta 2022ko 17 neurrien % 41,2 bete dira), nahiz eta aurrerapen partzialari dagokionez emaitzarik onena izan (neurrien % 47,1 partzialki garatu dira 2022an).

2025EKO II. PLAN OPERATIBOAN 2021 eta 2022RAKO AURREIKUSITAKO NEURRIEN BANAKETA, EZARPEN MAILAREN ETA DAGOKIEN JARDUKETA ARDATZAREN ARABERA Balio absolutuak eta ehunekoak. 2021-2022

ARDATZA	AURREIKUSI TAKO NEURRIAK GUZTIRA (KOP.)		HASITAKO NEURRIAK (%)		PARTIALKI GARATUTAKO NEURRIAK (%)		BETETAKO NEURRIAK (%)		INDARGABETUTA KO NEURRIAK (%)		ED/EDE (%)		AURREIKU SI GABEKO NEURRI BERRIAK (KOP.)	
	2021	2022	2021	2022	2021	2022	2021	2022	2021	2022	2021	2022	2021	2022
1 Soldata/ordua desberdintasuna murriztea	14	17	7,1	0,0	14,3	47,1	64,3	41,2	0,0	0,0	14,3	11,8	1	0
2 Lanaldiari dagokion desberdintasuna murriztea	19	22	0,0	0,0	15,8	22,2	78,9	63,6	0,0	9,1	5,3	4,5	0	0
3 Hezkuntza eta gizarte-sentsibilizazioa	7	13	0,0	0,0	28,6	23,1	57,1	38,5	14,3	38,5	0,0	0,0	0	0
4 Enpresen eta sindikatuen sentsibilizazioa	15	17	0,0	5,9	6,7	11,8	93,3	76,5	0,0	5,9	0,0	0,0	2	4
GUZTIRA	55	69	1,8	1,4	14,5	26,1	76,4	56,5	1,8	11,6	5,5	4,3	3	4

4.2.1 Neurrien garapen maila 2021ean

2021eko azterketan sakonduz, hurrengo taulak erabat bete diren neurrien edo aurrerapen partziala izan dutenen proportzioaren zerrenda ageri da, ardatz bakoitzean eta jarraibide bakoitzari dagokionez.

Lehen ardatzari dagokionez, 1.1 jarraibideetan multzokatutako neurri guztiak (*Langileei sexuagatiko soldata-diskriminaziorik ez izateko eskubidearen berri ematea eta zeharkako diskriminazio-egoerak salatzera animatzea*), 1.2 (*Langileei informazioa ematea sexuagatiko soldata-diskriminaziorik ez izateko eskubideari buruz, eta zuzeneko diskriminazio-egoeren salaketa bultzatzea*) eta 1.3 jarraibidekoak (*Orientazio-jarduera bokazionala indartu eta hobetzea, Euskadiko gazteek ibilbide profesionala aukeratzeko garaian informazio gehiago eta genero-estereotiporik gabea izan dezaten*) erabat ezarri dira edo garapen-maila aurreratua dute. Hala ere, 1.4 (*Ikasketa tekniko eta teknologikoetan emakume gehiago izan daitezen sustatzeko pizgarriak eskaintzea*) eta 1.5 jarraibideen garapena (*Emakumeek erabakitze arloetan eta zuzendaritzan duten presentzia eta eragina handitzea*) txikiagoa da.

Bigarren ardatzari dagokionez, ardatz honetako jarraibide guztiek betetze-maila partziala edo erabatekoa dute, % 100ean, 2.3 jarraibideak izan ezik (*Herritarrak, eta bereziki gizonak*

⁵ Batura 5 baino altuagoa da 2021eko neurri batzuk 2022an ere errepikatu direlako.

sentsibilizatzea etxeko zereginen eta pertsonen zaintzaren erantzunkidetasunarekiko). Azken horrek, 8 neurriekin, % 87,5eko erabateko ezarpen-maila edo partziala izan du 2021ean.

2025EKO II. PLAN OPERATIBOAN 2021ERAKO AURREIKUSITAKO NEURRI GUZTIEN GAINEAN ERABAT EDO PARTZIALKI GARATU DIREN NEURRIEN PROPORTZIOA, JARDUKETA ARDATZAREN ETA DAGOKIEN JARRAIBIDEAREN ARABERA Balio absolutuak eta ehunekoak.

ARDATZA ETA JARRAIBIDEA		2021 AURREIKUSITAKO NEURRIAK GUZTIRA (KOP.)	PARTZIALKI GARATUTAKO ETA BETETAKO NEURRIAK (%)
1 Soldata/ordua desberdintasuna murriztea	1.1 Gidalerroa	2	100,0
	1.2 Gidalerroa	3	100,0
	1.3 Gidalerroa	1	100,0
	1.4 Gidalerroa	5	60,0
	1.5 Gidalerroa	3	66,7
1^{er} ARDATZAREN GUZTIZKOA		14	78,6
2 Lanaldiari dagokion desberdintasuna murriztea	2.1 Gidalerroa	1	100,0
	2.2 Gidalerroa	1	100,0
	2.3 Gidalerroa	8	87,5
	2.4 Gidalerroa	3	100,0
	2.5 Gidalerroa	1	100,0
	2.7 Gidalerroa	5	100,0
2. ARDATZAREN GUZTIZKOA		19	94,7
3 Hezkuntza eta gizarte-sentsibilizazioa	3.1 Gidalerroa	4	100,0
	3.3 Gidalerroa	3	66,7
3. ARDATZAREN GUZTIZKOA		7	85,7
4 Enpresen eta sindikatuen sentsibilizazioa	4.1 Gidalerroa	9	100,0
	4.2 Gidalerroa	2	100,0
	4.3 Gidalerroa	2	100,0
	4.4 Gidalerroa	2	100,0
4. ARDATZAREN GUZTIZKOA		15	100,0
GUZTIRA		55	90,9

Hirugarren ardatzaren kasuan, bi jarraibidetik lehenak, 3.1 jarraibideak (*Hautzarotik haur-hezkuntzan oinarritzen den hezkuntza garatzea*) % 100eko garapen partziala edo erabatekoa du eta bigarrenak, 3.3 (*Jarraibideak garatzeko egin diren aurrerapausoak eta abian jarritako neurri bakoitzak izandako inpaktu erreala ebaluatzea*) % 66,7ko aurrerapena du jasotzen dituen hiru neurrietan.

Azkenik, enpresen eta sindikatuen sentsibilizazioari buruzko laugarren ardatzaren barruan dauden 4.1, 4.2, 4.3 eta 4.4 jarraibideek % 100eko ezarpen partziala edo erabatekoa dute.

Inplikaturako sailei eta organismoiei buruzko azterketak erakusten du 2021ean:

- Ekonomia Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailak 2021erako esleitutako 3 neurritik 2 garatu dituela partzialki edo erabat eta ezin izan du horietako baten egoerari buruzko informaziorik bildu (1.5.1). Gainera, hasieran aurreikusita ez zeuden 3 neurri txertatu eta ezarri ditu guztira.
- Ekonomia eta Ogasun Sailak % 50ean garatu ditu 2021ean esleitutako bi ekintzak, bat partzialki eta bestea erabat.
- Hezkuntza Sailak, bestalde, 8 neurri ditu esleituta eta garapen-maila handia du; izan ere, partzialki edo erabat ezarri ditu neurrien % 100.
- Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Sailak 11 neurri zituen garatzeko 2021ean, 2 ardatzetan multzokatuta, eta neurri horien % 90,9 partzialki edo erabat betetzea lortu du. Gainerako % 9,1 informaziorik bildu ezin izan den neurriari dagokiona da (2.3.3).

**2025EKO II. PLAN OPERATIBOAN 2021ERAKO AURREIKUSITAKO NEURRIEN BANAKETA, EZARPEN MAILAREN ETA SAIL
ARDURADUNAREN ARABERA** Balio absolutuak eta ehunekoak. 2021

SAILA	2021 AURREIKUSIT AKO NEURRIAK GUZTIRA (KOP.)	HASITAKO NEURRIAK (%)	PARTZIALKI GARATUTAKO NEURRIAK (%)	BETETAKO NEURRIAK (%)	INDARGABE TUTAKO NEURRIAK (%)	ED/EDE (%) ⁶	AURREIKUSI GABEKO NEURRI BERRIAK (KOP.)
Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena	3	0,0	33,3	33,3	0,0	33,3	3
Ekonomia eta Ogasuna	2	0,0	50,0	50,0	0,0	0,0	0
Hezkuntza	8	0,0	25,0	75,0	0,0	0,0	0
Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak	11	0,0	27,3	63,6	0,0	9,1	0
Lana eta Enplegua	16	6,3	0,0	87,5	0,0	6,3	0
Emakunde	12	0,0	8,3	83,3	8,3	0,0	0
Osasuna-Osakidetza	3	0,0	0,0	100,0	0,0	0,0	0
Lehendakaritza	0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0
Gobernantza Publikoa eta Autogobernua	0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0
GUZTIRA	55	1,8	14,5	76,4	1,8	5,5	3

- Lan eta enplegu Saila da neurri gehien dituen sailetako bat eta neurri horien % 87,5 erabat garatu ditu, eta beste % 6,3 ezin izan ditu garatu. Ez dago informazio orokorrik neurrietako baten aurrerapen-mailari buruz (1.4.5).
- Emakundek erabat ezarri ditu 2021erako aurreikusitako 12 neurriren % 83,3 eta partzialki % 8,3. 2021ean zehar esleitutako neurrietako bat ezin izan du ezarri, eta 2023ra atzeratu da neurri horren garapena.
- Osasun Sailak, Osakidetza bitartez, erabat ezarri ditu 2021erako aurreikusitako neurrien % 100.
- Gobernantza Publikoaren eta Autogobernuaren Sailak eta Lehendakaritzak ez dute 2021erako garatu beharreko neurririk esleitura.

⁶Ezin izan da 2021erako aurreikusitako hiru neurri buruzko informazioa eskuratu: Lanbiderekin lotutako Lan eta Enplegu Sailaren 1.4.5 Neurria; Ekonomia Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren 1.5.1 neurria; eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Sailaren 2.3.3 neurria.

2025EKO II. PLAN OPERATIBOAN 2025ERAKO AURREIKUSITAKO NEURRI GUZTIEN GAINEAN 2021EAN ERABAT EDO PARTZIALKI GARATU DIREN NEURRIEN PROPORTZIOA, JARDUKETA ARDATZAREN ETA SAIL ARDURADUNAREN ARABERA Balio absolutuak eta ehunekoak. 2021

ARDATZA	SAILA	2021 AURREIKUSITAKO NEURRIAK GUZTIRA (KOP.)	PARTZIALKI GARATUTAKO ETA BETETAKO NEURRIAK (%)
1 Soldata/ordua desberdintasuna murriztea	Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena	2	50,0
	Emakunde	1	100,0
	Hezkuntza	2	100,0
	Lana eta Enplegua	8	75,0
	Osasuna-Osakidetza	1	100,0
1^{RO} ARDATZAREN GUZTIZKOA		14	78,6
2 Lanaldiari dagokion desberdintasuna murriztea	Hezkuntza	3	100,0
	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak	11	90,9
	Lana eta Enplegua	3	100,0
	Osasuna-Osakidetza	1	100,0
	Emakunde	1	100,0
2. ARDATZAREN GUZTIZKOA		19	94,7
3 Hezkuntza eta gizarte-sentsibilizazioa	Hezkuntza	3	100,0
	Ekonomia eta Ogasuna	1	100,0
	Emakunde	3	66,7
3. ARDATZAREN GUZTIZKOA		7	85,7
4 Enpresen eta sindikatuen sentsibilizazioa	Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena	1	100,0
	Ekonomia eta Ogasuna	1	100,0
	Lana eta Enplegua	5	100,0
	Emakunde	7	100,0
	Osasuna-Osakidetza	1	100,0
4. ARDATZAREN GUZTIZKOA		15	100,0
GUZTIRA		55	90,9

4.2.2 Neurrien garapen maila 2022an

Hurrengo taulan erabat bete diren neurrien edo aurrerapen partziala izan dutenen proportzioaren zerrenda ageri da, ardatz bakoitzean eta jarraibide bakoitzari dagokionez. Emaitzek erakusten dute 2022rako aurreikusitako 69 neurrietatik % 82,6 erabat edo partzialki garatu direla.

Lehen ardatzari dagokionez, 1.1, 1.2 eta 1.3 jarraibideek aurrerapen-maila partziala edo erabatekoa dute esleitutako neurrien % 100ean eta 1.4 (*Ikasketa tekniko eta teknologikoetan emakume gehiago izan daitezen sustatzeko pizgarriak eskaintzea*) eta 1.5 jarraibidea (*Emakumeek erabakitze arloetan eta zuzendaritzan duten presentzia eta eragina handitzea*) dira aurrerapen-mailarik handiena dutenak, % 75 eta % 80 artean.

Bigarren ardatzari dagokionez, % 86,4ko ezarpen maila erabatekoa edo partziala du jarraibide eta neurri guztientzat. Garapen-mailarik txikiena duten jarraibideak hauek dira: 2.3 (*Herritarrek, eta bereziki gizonak sentsibilizatzea etxeko zereginen eta pertsonen zaintzaren erantzunkidetasunarekiko*), 8 neurriekin eta % 75eko garapen-maila erabatekoarekin edo partzialarekin; eta 2.7 (*Kontziliazio erantzunkidea sustatzen duten zerbitzuak eta pizgarri ekonomikoak handitzea, emakumeak lan-merkatutik ateratzea ekiditeko eta beren jarduera-tasa hobetzea*), 7 neurriekin eta % 85,7ko garapen-mailarekin.

2025EKO II. PLAN OPERATIBOAN 2022RAKO AURREIKUSITAKO NEURRI GUZTIEN GAINEAN ERABAT EDO PARTZIALKI GARATU DIREN NEURRIEN PROPORTZIOA, JARDUKETA ARDATZAREN ETA DAGOKIEN JARRAIBIDEAREN ARABERA Balio absolutuak eta ehunekoak.

ARDATZA ETA JARRAIBIDEA		2022 AURREIKUSITAKO NEURRIAK GUZTIRA (KOP.)	PARTZIALKI GARATUTAKO ETA BETETAKO NEURRIAK (%)
1 Soldata/ordua desberdintasuna murriztea	1.1 Gidalerroa	2	100,0
	1.2 Gidalerroa	3	100,0
	1.3 Gidalerroa	3	100,0
	1.4 Gidalerroa	5	80,0
	1.5 Gidalerroa	4	75,0
1^o ARDATZAREN GUZTIZKOA		17	88,2
2 Lanaldiari dagokion desberdintasuna murriztea	2.1 Gidalerroa	1	100,0
	2.2 Gidalerroa	2	100,0
	2.3 Gidalerroa	8	75,0
	2.4 Gidalerroa	2	100,0
	2.5 Gidalerroa	2	100,0
	2.7 Gidalerroa	7	85,7
2. ARDATZAREN GUZTIZKOA		22	86,4
3 Hezkuntza eta gizarte-sentsibilizazioa	3.1 Gidalerroa	4	100,0
	3.2 Gidalerroa	5	40,0
	3.3 Gidalerroa	4	50,0
3. ARDATZAREN GUZTIZKOA		13	61,5
4 Enpresen eta sindikatuen sentsibilizazioa	4.1 Gidalerroa	12	83,3
	4.2 Gidalerroa	2	100,0
	4.3 Gidalerroa	1	100,0
	4.4 Gidalerroa	2	100,0
4. ARDATZAREN GUZTIZKOA		17	88,2
GUZTIRA		69	82,6

Hirugarren ardatzari dagokionez, 3.2 jarraibideak (*Arazoa monitorizatu ahal izateko eta Euskadiko soldata-arrakalan eragina duten faktoreen bilakaeraren jarraipena egiteko ikerketa-dinamika txertatzea*) eta 3.3 jarraibideak (*Jarraibideak garatzeko egin diren aurrerapausoak eta abian jarritako neurri bakoitzak izandako inpaktu erreala ebaluatzea*) betetze-maila txikiagoa izan dute, % 40 eta % 50ekin, hurrenez hurren. Hein handi batean, bi jarraibide horiei lotutako neurriak atzeratu egin direlako eta/edo exekuzioaren iraunaldia amaitu egin delako, Dekretu berriak indarrean sartu direlako.

Laugarren ardatzari dagokionez, jarraibide guztietako ia neurri guztiak erabat garatu dira edo aurrerapen adierazgarria izan dute. Aipatzekoa da 4.1 jarraibideak (*Soldata-arrakalaren aurka zuzenean eta zeharka borroka egiteko neurriak dituzten enpresetan berdintasunerako planak orokortzea*), 12 neurriekin, aurrekoena baino apur bat baxuagoko aurrerapen-maila du, baina % 80aren gainetik dago.

Inplikaturako sailei eta organismoiei buruzko azterketak erakusten du 2022an:

- 2021ean bezala, Ekonomia Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak 2022rako esleitutako 3 neurritik 2 garatu ditu partzialki edo erabat eta ezin izan du horietako baten egoerari buruzko informaziorik bildu (1.5.1). Hala ere, hasieran aurreikusita ez zeuden 3 neurri berri txertatu eta ezarri ditu erabat.
- Ekonomia eta Ogasun Sailak aurrerapen partziala egin du neurri batean eta beste bat hastea lortu du (% 50). Gainera, hasieran aurreikusita ez zegoen neurri berri bat txertatu eta ezarri du.
- Hezkuntza Sailak aurreikusitako 9 neurritatik 5 garatu ditu erabat. Horrek esan nahi du, % 55,6 garatu dituela eta gainerako 4ak partzialki (% 44,4).

- Gobernantza Publikoaren eta Autogobernuaren Sailak garapen-maila partziala izan du lau neurritatik batean eta beste hiru indargabetu egin ditu, batez ere 2023ra eta 2024ra atzeratu direlako.
- Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Sailak 14 neurri ditu esleituta 2022rako garatzeko, eta horietatik 12 garatu ditu partzialki edo erabat; hots, % 85,7ko garapen-maila.

2025EKO II. PLAN OPERATIBOAN 2022RAKO AURREIKUSITAKO NEURRIEN BANAKETA, EZARPEN MAILAREN ETA SAIL ARDURADUNAREN ARABERA Balio absolutuak eta ehunekoak. 2022

SAILA	2022 AURREIKUSITAKO NEURRIAK GUZTIRA (KOP.)	HASITAKO NEURRIAK (%)	PARTZIALKI GARATUTAKO NEURRIAK (%)	BETETAKO NEURRIAK (%)	INDARGABETUTAKO NEURRIAK (%)	ED/EDE (%) ⁷	AURREIKUSI GABEKO NEURRI BERRIAK (KOP.)
Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena	3	0,0	33,3	33,3	0,0	33,3	3
Ekonomia eta Ogasuna	2	50,0	50,0	0,0	0,0	0,0	1
Hezkuntza	9	0,0	44,4	55,6	0,0	0,0	0
Gobernantza Publikoa eta Autogobernua	4	0,0	25,0	0,0	75,0	0,0	0
Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak	14	0,0	35,7	50,0	7,1	7,1	0
Lana eta Enplegua	18	0,0	22,2	66,7	5,9	5,9	0
Emakunde	13	0,0	15,4	69,2	15,4	0,0	0
Lehendakaritza	1	0,0	0,0	0,0	100,0	0,0	0
Osasuna- Osakidetza	5	0,0	0,0	100,0	0,0	0,0	0
GUZTIRA	69	1,5	26,1	56,5	11,1	4,4	4

- Lan eta Enplegu Sailak 2022rako aurreikusita zituen 18 neurritatik 16 garatu ditu partzialki edo erabat (% 88,9).
- Emakundeko Organismo Autonomoak 2022rako aurreikusita zituen neurrien % 84,6 garatu ditu erabat edo partzialki. Gainerako neurriak indargabetu egin dira, eta 2023an eta 2024an egiteko atzeratu dira, hurrenez hurren.
- Lehendakaritzaren kasuan, 2022rako esleitutako neurri bakarra indargabetu egin da, barne-arrazoiengatik.

Hurrengo taulak sail bakoitzak erabat edo partzialki garatu dituen neurriak jasotzen ditu, baita bakoitzari dagozkion ardatz estrategikoak ere. Oro har, ardatz guztien eta sail gehienek ezarpen-maila ertaina-altua da (% 82,6). Hala ere, 3. ardatzak garapen-maila txikiagoa du (% 61,5) aztertutako laurak baino: izan ere, hainbat sailetan (Gobernantza Publikoa eta Autogobernua, Lehendakaritza eta Emakunde) indargabetu dituzten neurrien zati handi bat ardatz horietakoa da.

⁷Ezin izan da hiru neurri buruzko informazioa eskuratu: Lanbiderekin lotutako Lan eta Enplegu Sailaren 1.4.5 Neurria; Ekonomia Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren 1.5.1 neurria; eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Sailaren 2.3.3 neurria.

2025EKO II. PLAN OPERATIBOAN 2022RAKO AURREIKUSITAKO NEURRI GUZTIEN GAINEAN ERABAT EDO PARTZIALKI GARATU DIREN NEURRIEN PROPORZIOA, JARDUKETA ARDATZAREN ETA SAIL ARDURADUNAREN ARABERA Balio absolutuak eta ehunekoak. 2022

ARDATZA	SAILA	2022 AURREIKUSITAKO NEURRIAK GUZTIRA (KOP.)	PARTZIALKI GARATUTAKO ETA BETETAKO NEURRIAK (%)
1 Soldata/ordua desberdintasuna murriztea	Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena	2	50,0
	Gobernantza	1	100,0
	Emakunde	1	100,0
	Hezkuntza	4	100,0
	Lana eta Enplegua	8	87,5
	Osasuna-Osakidetza	1	100,0
1^{GO} ARDATZAREN GUZTIZKOA		17	88,2
2 Lanaldiari dagokion desberdintasuna murriztea	Hezkuntza	2	100,0
	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak	14	100,0
	Gobernantza Publikoa eta Autogobernua	1	0,0
	Lana eta Enplegua	3	100,0
	Osasuna-Osakidetza	1	100,0
	Emakunde	1	100,0
2. ARDATZAREN GUZTIZKOA		22	86,4
3 Hezkuntza eta gizarte-sentsibilizazioa	Hezkuntza	3	100,0
	Ekonomia eta Ogasuna	1	100,0
	Gobernantza Publikoa eta Autogobernua	2	0,0
	Lana eta Enplegua	2	100,0
	Emakunde	3	66,7
	Lehendakaritza	1	0,0
	Osasuna-Osakidetza	1	100,0
3. ARDATZAREN GUZTIZKOA		13	61,5
4 Enpresen eta sindikatuen sentsibilizazioa	Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena	1	100,0
	Ekonomia eta Ogasuna	1	0,0
	Lana eta Enplegua	5	100,0
	Emakunde	8	87,5
	Osasuna-Osakidetza	2	100,0
4. ARDATZAREN GUZTIZKOA		17	88,2
GUZTIRA		69	82,6

Lan eta Enplegu Sailaren 1. ardatzari dagokionez, aurreikusitako neurrien % 87,5 erabat edo partzialki garatu du eta Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak % 50. Gainerako sailek partzialki bete edo garatu dituzte ardatz honetan aurreikusitako neurriak.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Sailaren 2. ardatzari dagokionez, ardatz horretan pisurik handienetakoa duenetako bat da eta ekintzen % 100 erabat edo partzialki egin izanak eragina du orotarako garapen-maila % 86,4koa izan dadin.

Azkenik, 4. ardatzari dagokionez, Lan eta Enplegu Sailak, Osasuna-Osakidetza, eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak ekintzen % 100 garatu du erabat edo partzialki, Emakundek neurrien % 87,5, eta Ekonomia eta Ogasun Saila izan da ardatz horri esleitutako neurria erabat garatu ezin izan duena, baina hasi da.

4.3 Emakumeak Industrian Txertatzeko Planari lotutako neurrien ezarpen-maila

Euskadiko soldata-arrakala murrizteko 2030 Estrategiak bost erronka planteatu ditu emakumeen eta gizonen arteko soldata-desberdintasunak desagerrarazteko, eta horien artean dago okupazioaren bereizketa murriztea, soldata-arrakalaren arrazoi nagusietako bat baita. Emakumeak egon ohi diren sektore eta lanbideek ordainsari okerragoak izan ohi dituzte

gizonenak baino. Errealitate horren aurrean, beharrezkoa da emakumeak industria gisako sektoreetara eta konpetentzia tekniko eta teknologikoekin lotura handiagoa duten lanbideetara erakartzea, sarri emakumeek ordezkaritza txikia baitute horietan. Horregatik, garrantzitsua da Emakumea Industrian Txertatzeko Plana egitea (EISP aurrerantzean).

Atal honetan, 2020ko I. Plan Operatiboan jasota dauden 2021 eta 2022rako aurreikusita dauden EISPri lotutako 6 neurriren ezarpen-mailaren azterketa espezifiko egin da, baita 2025eko II. Plan Operatiboan jasota dauden 2021 eta 2022rako aurreikusitako Emakumeak Industrian Sartzeko Planari lotutako 23 neurriena ere.

4.3.1 2020ko I. Plan Operatiboan jasotzen diren Emakumeak Industrian Txertatzeko Planari lotutako neurriak

I. Plan Operatiboaren kasuan, jasotako sei EISP neurriak lanaldiari dagokion desberdintasuna murrizteari buruzko 2. ardatzarekin daude lotuta eta % 83,3ko garapen-maila partziala eta/edo erabatekoa dute, eta 2021ean eta 2022an garatzea dago aurreikusita. Sailaren arabera, EISPn jasotako 6 neurriak lotuta daude Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Sailarekin.

2020KO I. PLAN OPERATIBOAN AURREIKUSITA DAUDEN EMAKUMEAK INDUSTRIAN SARTZEKO PLANARI LOTUTAKO NEURRIEN EZARPEN MAILA SAIL ARDURADUNAREN ARABERA 2021 eta 2022

ARDATZA	Saila	2021 ETA 2022RAKO AURREIKUSITAKO EISPn-RI LOTUTAKO NEURRI GUZTIAK (KOP.)	HASITAKO NEURRIAK (%)	PARTZIALKI GARATUTAKO NEURRIAK (%)	BETETAKO NEURRIAK (%)	INDARGABETUTAKO NEURRIAK (%)
2 Lanaldiari dagokion desberdintasuna murriztea	Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila.	6	0,0	16,7	66,7	16,7
GUZTIRA		6	0,0	16,7	66,7	16,7

Jarraian ageri den taulak 2020ko I. Plan Operatiboan jasotzen diren 2021 eta 2022rako EISPri lotutako 6 neurrien ezarpen-mailaren xehetasuna erakusten du, neurri horien exekuzioaz arduratzen den sailaren arabera:

2020KO I. PLAN OPERATIBOAN AURREIKUSITA DAUDEN EMAKUMEAK INDUSTRIAN SARTZEKO PLANARI LOTUTAKO NEURRIEN XEHETASUNA, SAIL ARDURADUNAREN ARABERA 2021 eta 2022

NEURRIAREN KODEA	NEURRIA	SAILA	EZARPEN MAILA	
			2021	2022
2.2.1	Soldata-arrakala murrizteko inpaktu zuzena duen kontziliazio erantzunkiderako neurriak hartzen laguntzeko ETE-entzako laguntzak	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak	Partzialki garatua	Eginda
2.2.2	Enpresen arloan kontziliazio erantzunkiderako neurriak egiaztatze eta ziurtatzeko sistemak sustatzea	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak	Gainbeheratua	Gainbeheratua
2.7.1	Bizitza pertsonalaren, familiakoaren eta laneakoaren kontziliazio erantzunkiderako laguntzak, hiru urteko adingabeak zaintzeko langileak kontratatze	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak	Eginda	Eginda
2.7.2	Kontziliazio erantzunkiderako laguntza-zerbitzuak sortzeko azterketak eta inbertsioak egiteko laguntza ekonomikoak	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak	Eginda	Eginda
2.7.3	Denbora soziala modu egokiagoan eta erantzunkidean antolatze dirulaguntzak	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak	Eginda	Eginda
2.7.5	Adingabeen zaintzan gizonak gehiago inplikatzeko programak	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak	Eginda	Partzialki garatua

4.3.2 2025eko II. Plan Operatiboan jasotzen diren Emakumeak Industrian Sartzeko Planari lotutako neurriak

2025eko II. Plan Operatiboaren kasuan, 2021ean, **EISPri lotutako neurrien % 70,6 bete dira** (tasa hori 2020koa baino altuagoa da, urte horretako kopurua % 36koa izan baitzen). Gainera, **neurrien % 23,5 partzialki garatu dira** (2020an ratio hori % 40koa izan da). 2022an, **EISPrekin lotutako neurrien % 59,1 bete da eta % 36,4 partzialki garatu da**.

1. ardatza, soldata/ordua desberdintasuna murrizteari buruzkoak % 83,3ko garapen partziala edo erabatekoa izan du 2021ean eta % 88,9koa 2022an. Hala, EISPri dagokionez betetze-mailarik neurritsuena duen ardatza da. 2 eta 4 ardatzak, lanaldiari dagokionez desberdintasuna murrizteari buruzkoak eta enpresen sentsibilizazioari buruzkoak, % 100eko garapen partziala edo erabatekoa dute, bai 2021ean, bai 2022an. Ez dago EISPrekin lotutako neurririk 3. ardatzean.

2025EKO II. PLAN OPERATIBOAN 2021-2022RAKO AURREIKUSITAKO EMAKUMEAK INDUSTRIAN SARTZEKO PLANARI LOTUTAKO NEURRIEN BANAKETA, EZARPEN MAILAREN ETA DAGOKIEN JARDUKETA ARDATZAREN ARABERA Balio absolutuak eta ehunekoak. 2021-2022.

ARDATZA	AURREIKUSITAKO EISPNI-RI LOTUTAKO NEURRI GUZTIAK (KOP.)		HASITAKO NEURRIAK (%)		PARTZIALKI GARATUTAKO NEURRIAK (%)		BETETAKO NEURRIAK (%)		INDARGABETUTAKO NEURRIAK (%)		ED/EDE (%) ⁸	
	2021	2022	2021	2022	2021	2022	2021	2022	2021	2022	2021	2022
1 Soldata/ordua desberdintasuna murriztea	6	9	0,0	0,0	33,3	66,7	50,0	22,2	0,0	0,0	16,7	11,1
2 Lanaldiari dagokion desberdintasuna murriztea	8	10	0,0	0,0	25,0	20,0	75,0	80,0	0,0	0,0	0,0	0,0
4 Enpresen eta sindikatuen sensibilizazioa	3	3	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0	100,0	0,0	0,0	0,0	0,0
GUZTIRA	17	22	0,0	0,0	23,5	36,4	70,6	59,1	0,0	0,0	5,9	4,8

Sail guztiek ezarri dituzte partzialki edo erabat EISPri lotutako neurriak (Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren kasuan izan ezik, ezin izan baitu bere neurri bati buruzko informaziorik jaso). Bereziki nabarmentzekoa da Hezkuntza, Lan eta Enplegu Sailaren eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Sailaren ezarpen-maila, EISPri lotutako neurri gehien dituzten sailak baitira.

EMAKUMEAK INDUSTRIAN SARTZEKO PLANARI LOTUTA ERABAT EDO PARTZIALKI GARATU DIREN NEURRIEN PROPORTZIOA, **2025EKO II. PLAN OPERATIBOAN** AURREIKUSITAKO EISP-RI LOTUTAKO NEURRI GUZTIEN GAINEAN, SAIL ARDURADUNAREN ARABERA Balio absolutuak eta ehunekoak. 2021-2022

SAILAK	2021AN AURREIKUSITAKO NEURRIAK GUZTIRA (KOP.)	2021EAN PARTZIALKI GARATUTAKO ETA BETETAKO EISP-REN NEURRIEN %	2022AN AURREIKUSITAKO NEURRIAK GUZTIRA (KOP.)	2022AN PARTZIALKI GARATUTAKO ETA BETETAKO EISP-REN NEURRIEN %
Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena	2	50,0	2	50,0
Hezkuntza	5	100,0	6	100,0
Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak	3	100,0	6	100,0
Lana eta Enplegua	6	100,0	6	100,0
Gobernantza eta Funtzio Publikoa	0	100,0	1	100,0
Emakunde	1	100,0	1	100,0
GUZTIRA	17	94,1	22	95,5

Jarraian ageri den taulak EISPri lotutako 23 neurrien ezarpen-mailaren xehetasuna erakusten du, neurri horien exekuzioaz arduratzen den sailaren arabera:

⁸Ezin izan da Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren 1.5.1 Emakumeek EAeko industria enpresen zuzendaritza-postuetan eta administrazio-batzordeetan duten presentzia handitzeko ekintzak izeneko neurriari buruzko informaziorik lortu.

2025EKO II. PLAN OPERATIBOIA. PLAN OPERATIBOAN AURREIKUSITAKO EMAKUMEAK INDUSTRIAN SARTZEKO PLANARI LOTUTAKO
NEURRIEN XEHETASUNA, SAIL ARDURADUNAREN ARABERA 2021 eta 2022

NEURRI AREN KODEA	NEURRIA	SAILA	EZARPEN MAILA	
			2021	2022
1.3.1	Orientazio bokazional ez sexistari buruzko prestakuntza espezifikoa hezkuntzako orientatzaileentzat	Hezkuntza Saila	--	Partzialki garatua
1.3.2	Prestakuntza profesionalari eta enpleguari buruzko sentsibilizazioa, tradizionalki maskulinizatuta eta feminizatuta egon diren adar profesionalentzat	Hezkuntza Saila	--	Partzialki garatua
1.3.3	Lanbide Heziketako ikastegi bateratueta egindako emakumeen eta gizonen berdintasunaren sustapena	Hezkuntza Saila	Partzialki garatua	Partzialki garatua
1.4.1	Tradizionalki maskulinizatuta egon diren lanbideetara emakumeak sar daitezten sustatzeko Euskadiko enpresa eragileek duten konpromisoa.	Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila.	Partzialki garatua	Partzialki garatua
1.4.2	STEM aspirazio profesionalen eta STEM asmo profesionalen sustapena genero-ikuspegitik - STEM hezkuntzaren estrategia Euskadin	Hezkuntza Saila	Eginda	Eginda
1.4.3	Langabezia dauden emakumeak maskulinizatutako lanbideetan kontratatatzeko eta prestakuntza eskaintzeko proiektuei bideratutako dirulaguntzak	Lan eta Enplegu Saila	Eginda	Partzialki garatua
1.5.1	Emakumeek EAEko industria enpresen zuzendaritza-postuetan eta administrazio-batzordeetan duten presentzia handitzeko ekintzak	Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila.	Ez dago informaziorik	Ez dago informaziorik
1.5.2	Emakumeek sektore publikoko zuzendaritza-postuetan eta administrazio-batzordeetan duten presentziari buruzko azterketa	Gobernantza Publikoaren eta Autogobernuaren Saila	--	Partzialki garatua
1.5.3	Emakumeen ekintzailetzaren sustapena eta emakumeen talentua enpresen eta erakundeetan zuzendaritza-organoetan txertatzea	Lan eta Enplegu Saila	Eginda	Eginda
2.2.1	Bizitza pertsonalaren, familiakoaren eta laneakoaren kontziliazio erantzunkiderako neurriak ezartzeko enpresentzako dirulaguntzak	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila.	--	Eginda
2.2.2	Kontziliazio erantzunkidea sustatzen duten enpresen egiaztagiri eta ziurtagiri sistemak sustatzea	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila.	Partzialki garatua	Partzialki garatua
2.3.4	Zainlab: Zaintzen arloan eta Silver Economy enplegu-aukerak eta ekintzailetza definitzeko eta sustatzeko estrategia	Lan eta Enplegu Saila	Eginda	Eginda
2.4.1	Familiak haur-eskola pribatuetarako sarbidea izan dezaten ahalbidetzeko dirulaguntzak	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila.	Eginda	Eginda
2.4.2	Familiak udal haur-eskoletarako sarbidea izan dezaten ahalbidetzeko dirulaguntzak	Hezkuntza Saila	Eginda	Eginda
2.4.3	Familiak haurreskoletarako sarbidea izan dezaten ahalbidetzea	Hezkuntza Saila	Eginda	--
2.7.1	Bizitza pertsonalaren, familiakoaren eta laneakoaren kontziliazio erantzunkiderako laguntzak, 14 urteko adingabeak zaintzeko langileak kontratatatzeko	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila.	--	Eginda
2.7.2	Kontziliazioan laguntzeko dauden hainbat zerbitzuren berri izateko azterketa egitea	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila.	--	Eginda
2.7.3	Adingabeak eta mendeko pertsonak zaintzeko eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartu duten langileak ordezkatzeko dirulaguntzak	Lan eta Enplegu Saila	Eginda	Eginda
2.7.4	Arlo pribatuan aitasun-baimenak parekatzeko laguntza	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila.	Eginda	Eginda
2.7.6	Adineko pertsonen edo mendekotasuna dutenen arretarako atsedenen aldagaia sustatzea	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila.	Partzialki garatua	Partzialki garatua
4.1.2	Enpresa ertain eta txikitik berdintasun-planak egiteko laguntza ekonomikoak	Emakunde	Eginda	Eginda

NEURRI AREN KODEA	NEURRIA	SAILA	EZARPEN MAILA	
			2021	2022
4.1.3	Sistematizazio eta gardentasun handiagoa enpresetako hautaketa, sustapen eta lanpostuen balorazio prozesuetan, elkarriketa sozialaren bitartez.	Lan eta Enplegu Saila	Eginda	Eginda
4.3.1	Genero-berdintasuna elkarriketa sozialerako mahaia lantalde guztietara zeharka zabaltzea	Lan eta Enplegu Saila	Eginda	Eginda

4.4 Exekutututako aurrekontua

Atal honetan daude 2020ko I. Plan Operatiboko eta 2021ean eta/edo 2022an gauzatu beharreko II. Plan Operatiboko neurriei dagokien aurrekontuaren exekuzio-mailaren emaitzak.

Hala ere, komeni da argitzea ezin izan dela bi Plan Operatiboentzako azterketaren xede-neurri guztien gaineko aurrekontuaren exekuzioari buruzko informazio guztia bildu. Ezarri ahal izateko zenbateko espezifikorik esleituta ez duten neurriak daude, bai gastuak sailaren berezko baliabideen bitartez ordaintzen direlako, bai gauzatutako aurrekontuari buruzko informazioa ezin izan delako bildu.

Gainera, kontuan izan behar da neurri batzuen kasuan, aurrekontuari buruz jasotako datuak hainbat irizpideren arabera egindako gutxi gorabeherako hurbilpenak direla (kasuaren eta sailaren arabera), izan ere, sailek ez dute beti eskatzen zaien informazioa bereizketa maila nahikoarekin izaten. Bestalde, kontuan izan behar da neurri batzuk berriki jarri direla abian eta oraindik ez dela astirik izan aurrekontua exekutatzeko. Txostenaren atal honetan aurkeztuko diren datu guztiak modu orientatiboan hartu behar dira aintzat eta zuhurtziaz interpretatu.

4.4.1 2020ko I. Plan Operatiboko neurriei dagokienez exekutututako aurrekontua

2021ean eta/edo 2022an garatzea aurreikusten ziren 2020ko I. Plan Operatiboko 10 neurrietatik 6ri buruzko informazioa jaso ahal izan da (% 60). Gainerako neurriak hainbat sailtako berezko baliabideen bitartez finantzatzen dira nagusiki.

2021eko aurrekontuaren exekuzioa

2021ean aurreikusitako aurrekontuaren % 72,4 exekutatu da gutxi gorabehera. Zehazki, 24.962.413,00 € exekutatu dira guztira, aurreikusitako 34.456.813,25 €-ko zenbatekoaren gainean. Aztertutako 6 neurriak lanaldiari dagokion desberdintasuna murrizteari buruzko 2. ardatzean, eta enpresen eta sindikatuen sentsibilizazioari buruzko 4. ardatzean daude.

Lanaldiari dagokion desberdintasuna murrizteari buruzko 2. ardatzari lotutako neurrietan 24.875.535,00€ko inbertsioa egin da aurreikusitako 34.369.935,25 €-ren gainean, eta, hortaz, % 72,4ko exekuzio-indizea dute. Bestalde, 4. ardatzari lotutako neurrien aurrekontuaren exekuzio-maila % 100ekoa da, 86.878,00 € guztira.

2020KO I. PLAN OPERATIBOAN 2021ERAKO AURREIKUSITAKO NEURRIEI DAGOKIENEZ AURREIKUSITAKO ETA EXEKUTATUTAKO AURREKONTUA, JARDUKETA ARDATZAREN ARABERA Balio absolutuak eta ehunekoak 2021

ARDATZA	Informazio kuantitatiboa duten neurrien kopurua, aurrekontuaren/neurri guztien gainean	2021ERAKO AURREIKUSITAKO AURREKONTUA GUZTIRA (€) 6 neurri	2021EAN EXEKUTATUTAKO KUANTIFIKATUTAKO AURREKONTU OSOA (€) 6 neurri	2021EAN AURREIKUSITAKOAREN GAINEAN EXEKUTATUTAKO AURREKONTUA (%)
2 Lanaldiari dagokion desberdintasuna murriztea	5/7	34.369.935,25 €	24.875.535,00 €	72,4
3 Hezkuntza eta gizarte-sentsibilizazioa	0/1	--	--	--
4 Enpresen eta sindikatuen sentsibilizazioa	1/2	86.878,00 €	86.878,00 €	100,0
GUZTIRA	6/10	34.456.813,25 €	24.962.413,00 €	72,4

Oharra: Lehen zutabean, aurreikusitako eta exekutututako aurrekontuaren gaineko informazio kuantitatiboa duten neurrien kopurua ageri da, 2021erako neurri guztiei dagokienez (berezko baliabideekin garatzen diren neurriak ez dira zenbatzen). Bigarren zutabean, aurrekontuaren informazio kuantitatiboa duten 2020ko I. Plan Operatiboan hasieran aurreikusita zegoen aurrekontua ageri da, 2021eko neurri guztientzat (gainerakoak zenbaketatik kanpo geratu dira).

Sailen arabera azterketan ikus daiteke Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Sailak hasieran aurreikusitako aurrekontuaren % 72,4 exekutatu duela eta Emakundek % 100.

2020KO I. PLAN OPERATIBOAN 2021ERAKO AURREIKUSITAKO NEURRIEI DAGOKIENEZ AURREIKUSITAKO ETA EXEKUTATUTAKO AURREKONTUA, SAIL ARDURADUNAREN ARABERA. Balio absolutuak eta ehunekoak 2021

SAILA	Informazio kuantitatiboa duten neurrien kopurua, aurrekontuaren/neurri guztien gainean	2021ERAKO AURREIKUSITAKO AURREKONTUA GUZTIRA (€) 6 neurri	2021EAN EXEKUTATUTAKO KUANTIFIKATUTAKO AURREKONTU OSOA (€) 6 neurri	2021EAN AURREIKUSITAKOAREN GAINEAN EXEKUTATUTAKO AURREKONTUA (%)
Ekonomia eta Ogasuna	0/1	Berezko baliabideak, kuantifikatu gabe	Berezko baliabideak, kuantifikatu gabe	--
Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak	5/7	34.369.935,25 €	24.875.535,00 €	72,4
Lana eta Enplegua⁹	0/1	--	--	--
Emakunde	1/1	86.878,00 €	86.878,00 €	100,0
GUZTIRA	6/10	34.456.813,25 €	24.962.413,00 €	72,4

Oharra: Lehen zutabean, aurreikusitako eta exekutututako aurrekontuaren gaineko informazio kuantitatiboa duten neurrien kopurua ageri da, 2021erako neurri guztiei dagokienez (berezko baliabideekin garatzen diren neurriak ez dira zenbatzen). Bigarren zutabean, aurrekontuaren informazio kuantitatiboa duten 2020ko I. Plan Operatiboan hasieran aurreikusita zegoen aurrekontua ageri da, 2021eko neurri guztientzat (gainerakoak zenbaketatik kanpo geratu dira).

2022ko aurrekontuaren exekuzioa

2022rako aurrekontuaren exekuzio-maila 2021ekoa baino apur bat txikiagoa da, % 57,9; izan ere, 2022an Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Sailaren 2. ardatzeko neurri batzuk partzialki garatu dira. Zehazki, 21.287.009,00 € exekutatu dira guztira, aurreikusitako 36.756.053,59 €-ko zenbatekoaren gainean.

⁹Lan eta Enplegu Sailari dagokion neurriak ez du aurreikusitako aurrekonturik eta ez du gasturik izan exekutatzeko garaian. 2021ean betetako neurria.

2020KO I. PLAN OPERATIBOAN 2022RAKO AURREIKUSITAKO NEURRIEI DAGOKIENEZ AURREIKUSITAKO ETA EXEKUTATUTAKO AURREKONTUA, JARDUKETA ARDATZAREN ARABERA Balio absolutuak eta ehunekoak 2022

ARDATZA	Informazio kuantitatiboa duten neurrien kopurua, aurrekontuaren/neurri guztien gainean	2022RAKO AURREIKUSITAKO AURREKONTUA GUZTIRA (€) 6 neurri	2022AN EXEKUTATUTAKO KUANTIFIKATUTAKO AURREKONTU OSOA (€) 6 neurri	2022AN AURREIKUSITAKOAREN GAINEAN EXEKUTATUTAKO AURREKONTUA (%)
2 Lanaldiari dagokion desberdintasuna murriztea	5/7	36.669.175,59 €	21.200.131,00 €	57,8
4 Enpresen eta sindikatuen sentsibilizazioa	1/2	86.878,00 €	86.878,00 €	100,0
GUZTIRA	6/9	36.756.053,59 €	21.287.009,00 €	57,9

Oharra: Lehen zutabea, aurreikusitako eta exekutatutako aurrekontuaren gaineko informazio kuantitatiboa duten neurrien kopurua ageri da, 2022rako neurri guztiei dagokienez (berezko baliabideekin garatzen diren neurriak ez dira zenbatzen). Bigarren zutabea, aurrekontuaren informazio kuantitatiboa duten 2020ko I. Plan Operatiboan hasieran aurreikusita zegoen aurrekontua ageri da, 2022ko neurri guztientzat (gainerakoak zenbaketatik kanpo geratu dira).

Sailen arabera azterketan ikus daiteke Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Sailak 2022rako hasieran aurreikusitako aurrekontuaren % 57,8 exekutu duela eta Emakundek % 100.

2020KO I. PLAN OPERATIBOAN 2022RAKO AURREIKUSITAKO NEURRIEI DAGOKIENEZ AURREIKUSITAKO ETA EXEKUTATUTAKO AURREKONTUA, SAIL ARDURADUNAREN ARABERA. Balio absolutuak eta ehunekoak 2022

SAILA	Informazio kuantitatiboa duten neurrien kopurua, aurrekontuaren/neurri guztien gainean	2022RAKO AURREIKUSITAKO AURREKONTUA GUZTIRA (€) 6 neurri	2022AN EXEKUTATUTAKO KUANTIFIKATUTAKO AURREKONTU OSOA (€) 6 neurri	2022AN AURREIKUSITAKOAREN GAINEAN EXEKUTATUTAKO AURREKONTUA (%)
Ekonomia eta Ogasuna	0/1	Berezko baliabideak, kuantifikatu gabe	Berezko baliabideak, kuantifikatu gabe	--
Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak	5/7	36.669.175,59 €	21.200.131,00 €	57,8
Emakunde	1/1	86.878,00 €	86.878,00 €	100,0
GUZTIRA	6/9	36.756.053,59 €	21.287.009,00 €	57,9

Oharra: Lehen zutabea, aurreikusitako eta exekutatutako aurrekontuaren gaineko informazio kuantitatiboa duten neurrien kopurua ageri da, 2022rako neurri guztiei dagokienez (berezko baliabideekin garatzen diren neurriak ez dira zenbatzen). Bigarren zutabea, aurrekontuaren informazio kuantitatiboa duten 2020ko I. Plan Operatiboan hasieran aurreikusita zegoen aurrekontua ageri da, 2022ko neurri guztientzat (gainerakoak zenbaketatik kanpo geratu dira).

4.4.2 2025eko II. Plan Operatiboko neurriei dagokienez exekutatutako aurrekontua

2021erako aurreikusitako 55 neurritatik 30entzat bildu ahal izan dira datu kuantitatiboak (% 54,5 inguru) eta 2022aren kasuan, aurreikusitako 69 neurritatik 41en aurrekontuaren azterketa egiteko datu kuantitatiboak bildu ahal izan dira (%59,4), baita aurreikusita ez zegoen eta Ekonomia eta Ogasun Sailak ezarri duen neurri bati buruzkoa ere¹⁰.

¹⁰ 2022rako Planean aurreikusita ez zeuden lau neurri berritatik hiru Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren eta Emakunderen berezko baliabideekin garatu dira; hortaz, ez du informazio kuantitatibo espezifikorik. Aldiz, Ekonomia eta Ogasun Sailak garatu duen neurriaren kasuan, eskuragarri dago exekuzio-aurrekontua.

2021eko aurrekontuaren exekuzioa

Informazio kuantitatiboa duten 30 neurrien datuen analisiak adierazten du, **2021erako ¹¹aurreikusitako aurrekontuaren % 86,1 exekutatu** dela gutxi gorabehera (horrek esan nahi du 2020koa baino ehuneko nabarmen altuagoa dela, orduan % 55,8koa izan baitzen). Balio absolututetan, aurrekontuaren exekuzioa 56,59 milioi eurotik gorakoa da.

Nabarmentzekoa da lanaldiari dagokionez dauden desberdintasunak murrizteari buruzko 2. ardatza. Izan ere, aurreikusitako zenbateko ekonomikorik handiena duen ardatza da eta aurreikusitako aurrekontuaren gainean lortu duen aurrekontuaren exekuzioa nabarmena da, 53.727.746,96 €. Termino erlatiboetan esan nahi du % 88,1eko exekuzio-maila izan duela (ehuneko hori ere 2020aren gainetik geratzen da, orduan % 56,4 erregistratu baitzen).

Hezkuntza eta gizarte-sentsibilizazioaren 3. ardatza da exekuzio-tasarik handiena duena, % 95,4, eta 2. ardatzekoa baino kopuru txikiagoarekin, 1.453.691,00 €. 4. ardatzak, enpresen eta sindikatuen sentsibilizazioari buruzkoak, aurrekontuaren exekuzio-maila altua du baita ere, % 88,3koa.

Bestalde, 1. ardatza, soldata/ordua desberdintasuna murriztera bideratutakoa da aurrekontuaren exekuzio-mailarik mugatuena izan duena, % 35,8. Izan ere, neurrien zati adierazgarri bat berezko baliabideekin egin da.

2025EKO II. PLAN OPERATIBOAN 2021ERAKO AURREIKUSITAKO NEURRIEI DAGOKIENEZ AURREIKUSITAKO ETA EXEKUTATUTAKO AURREKONTUA, JARDUKETA ARDATZAREN ARABERA Balio absolutuak eta ehunekoak 2021

ARDATZA	Informazio kuantitatiboa duten neurrien kopurua, aurrekontuaren/neurri guztien gainean	2021ERAKO AURREIKUSITAKO AURREKONTUA GUZTIRA (€) 30 neurri	2021EAN EXEKUTATUTAKO KUANTIFIKATUTAKO AURREKONTU OSOA (€) 30 neurri	2021EAN AURREIKUSITAKOAREN GAINEAN EXEKUTATUTAKO AURREKONTUA (%) 30 neurri
1 Soldata/ordua desberdintasuna murriztea	8/14	2.688.662,00	961.295,02	35,8
2 Lanaldiari dagokion desberdintasuna murriztea	11/19	61.011.639,79	53.727.746,96	88,1
3 Hezkuntza eta gizarte-sentsibilizazioa	3/7	1.524.455,00	1.453.691,00	95,4
4 Enpresen eta sindikatuen sentsibilizazioa	8/15	512.648,00	452.498,38	88,3
GUZTIRA	30/55	65.737.404,79	56.595.231,36	86,1

Oharra: Lehen zutabea, aurreikusitako eta exekututako aurrekontuaren gaineko informazio kuantitatiboa duten neurrien kopurua ageri da, 2021erako neurri guztiei dagokienez (berezko baliabideekin garatzen diren neurriak ez dira zenbatzen). Bigarren zutabea, aurrekontuaren informazio kuantitatiboa duten II. Plan Operatiboan hasieran aurreikusita zegoen aurrekontua ageri da, 2021eko neurri guztientzat (gainerakoak zenbaketatik kanpo geratu dira).

Hurrengo taulan sail bakoitzarentzako exekutututako aurrekontuaren azterketa ageri da, kasu bakoitzerako eskuragarri dagoen informazioaren arabera (gogoan izan behar da neurri batzuk berezko neurriekin garatu direla, kuantifikatu gabe, eta, hortaz, ez direla taulan ageri, hala nola Ekonomia eta Ogasun Sailaren kasuan eta Osasuna-Osakidetzaren kasuan).

¹¹Atal honetako kalkuluak egiteko, hasieran II. Plan Operatiboan aurreikusita zegoen aurrekontua hartu da aintzat, sail bakoitzak emandako informazioarekin berrikusi eta egokitu ondoren. Hortaz, aurreikusitako eta exekutututako aurrekontua sail bakoitzak emandakoa da. Neurri bakoitzaren fitxen xehetasuna txosten honen 6. atalean dago jasota.

Hezkuntza Saila da exekutatatuko aurrekontuaren mailarik handiena duena, % 99,9rekin, hau da, 31.222.745,17 € termino erlatiboetan; ondoren, Emakunde % 94,3rekin eta, gero, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Saila, % 78,5ekin, eta 23 milioi euroak gainditzten dituen aurrekontuaren bolumen adierazgarriarekin.

2025EKO II. PLAN OPERATIBOAN 2021ERAKO AURREIKUSITAKO NEURRIEI DAGOKIENEZ AURREIKUSITAKO ETA EXEKUTATUTAKO AURREKONTUA, SAIL ARDURADUNAREN ARABERA. Balio absolutuak eta ehunekoak 2021

SAILA	Informazioa duten neurrien kopurua, aurrekontuaren/neurri guztien gainean	2021ERAKO AURREIKUSITAKO AURREKONTUA GUZTIRA (€) 30 neurri	2021EAN EXEKUTATUTAKO KUANTIFIKATUTAKO AURREKONTU OSOA (€) 30 neurri	2021EAN AURREIKUSITAKOAREN GAINEAN EXEKUTATUTAKO AURREKONTUA (%) 30 neurri
Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena	3/3	45.000,00 €	7.254,00 €	16,1
Ekonomia eta Ogasuna	0/2	Baliabide propioak	Baliabide propioak	--
Hezkuntza	6/8	31.249.863,00 €	31.222.745,17 €	99,9
Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak	5/11	29.336.631,79 €	23.031.699,79 €	78,5
Lana eta Enplegua	8/16	4.456.310,00 €	1.720.846,02 €	38,6
Emakunde	8/12	649.600,00 €	612.686,38 €	94,3
Osasuna-Osakidetza	0/3	Baliabide propioak	Baliabide propioak	
GUZTIRA	30/55	65.737.404,79 €	56.595.231,36 €	86,1

Oharra: Lehen zutabean, aurreikusitako eta exekutatatuko aurrekontuaren gaineko informazio kuantitatiboa duten neurrien kopurua ageri da, 2021erako neurri guztiei dagokienez (berezko baliabideekin garatzen diren neurriak ez dira zenbatzen). Bigarren zutabean, aurrekontuaren informazio kuantitatiboa duten II. Plan Operatiboan hasieran aurreikusita zegoen aurrekontua ageri da, 2021eko neurri guztientzat (gainerakoak zenbaketatik kanpo geratu dira). (--) ikurrarekin daude adierazita informazio kuantitatibo nahikorik ez duten kasuak.

Hala ere, aurrekonturik txikiena exekutatu duten sailak Lan eta Enplegu Saila (% 38,6) eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila (% 16,1) dira. Lan eta Enplegu Sailaren kasuan, neurrien garapen-maila nabarmena den arren, azkenean, aurreikusitakoa baino kopuru txikiagoa exekutatu gauzatu ditu. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak, bestalde, ezin izan du neurri guztien aurrekontuaren exekuzioari buruzko informaziorik bildu. Gogoan izan behar da, ez Gobernantza Publikoaren eta Autogobernuaren Sailak, ez Lehendakariak, ez zuela neurririk aurreikusita 2021ean garatzeko.

Azkenik, Emakumea Industrian Txertatzeko Planean (EISP) aurreikusitako 17 neurritatik 12ri buruz dagoen informazioaren arabera, aurrekontuaren exekuzio-maila oso adierazgarria lortu da, % 91,9koa. Horrek esan nahi du 34.139.879,19 €-ko exekuzioa izan dela aurreikusitako 37.130.169,00 €-ko guztizkoaren gainean.

2025EKO II. PLAN OPERATIBOAN 2021ERAKO AURREIKUSITAKO EISP-RI LOTUTAKO NEURRIEI DAGOKIEN AURREIKUSITAKO ETA EXEKUTATUTAKO AURREKONTUA Balio absolutuak eta ehunekoak 2021

	Informazio kuantitatiboa duten neurrien kopurua, aurrekontuaren/neurri guztien gainean	2021ERAKO AURREIKUSITAKO AURREKONTUA GUZTIRA (€) 12 neurri	2021EAN EXEKUTATUTAKO KUANTIFIKATUTAKO AURREKONTU OSOA (€) 12 neurri	2021EAN AURREIKUSITAKOAREN GAINEAN EXEKUTATUTAKO AURREKONTUA (%) 12 neurri
GUZTIRA	12/17	37.130.169,00	34.139.879,19	91,9

2022ko aurrekontuaren exekuzioa

Informazio kuantitatiboa duten neurri guztiei buruzko azterketak adierazten du **2022rako aurreikusitako¹² aurrekontuaren % 73,7 exekutatu dela**. Horrek esan nahi du 2021ekoa baino kopuru apur bat txikiagoa dela, orduan % 86,1ekoa baitzen. Aurrekontuaren exekuzio txikiago hori azaltzeko arrazoietako bat izan daiteke neurri gehiago indargabetu (8 neurri 2022an eta bat 2021ean) eta garatu direla partzialki. Hala ere, exekutatutako aurrekontuaren kopurua 55 milioi eurokoa da, hainbat sailek egindako txostenaren arabera.

Ardatzaren arabera, lanaldiaren gaineko desberdintasuna murrizteari buruzko 2. ardatza nabarmentzen da, aurrekontuaren exekuzio-mailarengatik (% 75,1) eta, batez ere, exekutatutako aurrekontuaren bolumenarengatik, 51,74 milioi eurotik gorakoa baita.

Hezkuntza eta gizarte-sentsibilizazioarekin lotutako 3. ardatza da aurrekontuaren exekuzio-tasarik handiena duena 2022an, % 94,8, eta bolumena bigarren lekuan egongo litzateke, 1.628.369,00 euroekin exekutatuta.

Hala ere, soldata/ordua desberdintasuna murriztera bideratutako 1. ardatza da 2022an aurrekontuaren exekuzio-mailarik txikiena izan duena, % 39,9 zehazki. Arrazoi nagusiak dira ardatz honetako neurri asko ezin izan direla erabat garatu eta bete ahal izan direnetatik batzuk berezko baliabideekin garatu direla azkenean, hainbat sailek jakinarazitakoaren arabera.

Azkenik, enpresen eta sindikatuen sentsibilizazioari buruzko 4. ardatzaren exekuzio-ehunekoa % 48,8koa da, hau da, 381.080,33 € euro exekutatu dira aurreikusitako 780.264,94€ko guztizkoaren gainean.

2025EKO II. PLAN OPERATIBOAN 2022RAKO AURREIKUSITAKO NEURRIEI DAGOKIENEZ AURREIKUSITAKO ETA EXEKUTATUTAKO AURREKONTUA, JARDUKETA ARDATZAREN ARABERA Balio absolutuak eta ehunekak 2022

ARDATZA	Informazio kuantitatiboa duten neurrien kopurua, aurrekontuaren/neurri guztien gainean	2022RAKO AURREIKUSITAKO AURREKONTUA GUZTIRA (€) 41 neurri	2022AN EXEKUTATUTAKO KUANTIFIKATUTAKO AURREKONTU OSOA (€) 41+ 1 neurri ¹³	2022AN AURREIKUSITAKOAREN GAIANEAN EXEKUTATUTAKO AURREKONTUA (%) 41+ 1 neurri
1 Soldata/ordua desberdintasuna murriztea	9/17	3.266.024,00	1.302.795,62	39,9
2 Lanaldiari dagokion desberdintasuna murriztea	16/22	68.928.968,00	51.748.755,12	75,1
3 Hezkuntza eta gizarte-sentsibilizazioa	5/13	1.717.481,00	1.628.369,00	94,8
4 Enpresen eta sindikatuen sentsibilizazioa	12/17	780.264,94	381.079,83	48,8
GUZTIRA	41/69	74.692.737,94	55.060.999,57	73,7

Oharra: Lehen zutabea, aurreikusitako eta exekutatutako aurrekontuaren gaineko informazio kuantitatiboa duten neurrien kopurua ageri da, 2022rako neurri guztiei dagokienez (berezko baliabideekin garatzen diren neurriak ez dira zenbatzen). Bigarren zutabea, aurrekontuaren informazio kuantitatiboa duten II. Plan Operatiboan hasieran aurreikusita zegoen aurrekontua ageri da, 2022ko neurri guztientzat (gainerakoak zenbaketatik kanpo geratu dira).

¹²Atal honetako kalkuluak egiteko, hasieran II. Plan Operatiboan aurreikusita zegoen aurrekontua hartu da aintzat, sail bakoitzak emandako informazioarekin berrikusi eta egokitu ondoren. Hortaz, aurreikusitako eta exekutatutako aurrekontua sail bakoitzak emandakoa da. Neurri bakoitzaren fitxen xehetasuna txosten honen 6. atalean dago jasota.

¹³4. ardatzean (4.1 gidalerroa) aurreikusita ez dagoen eta Ekonomia eta Ogasun Sailak ezarri duen neurri berri baten exekutatutako aurrekontuari buruzko informazioa gehitu da (Arloan aplikagarria den araudia aztertuz, kontratu publikoetan genero-berdintasuneko klausulak txertatzeko aukerei buruz gogoeta egiteko jardunaldia) eta aurrekontua 885,37 €-ra igo da.

Hurrengo taulak 2022an exekutaturako aurrekontuaren azterketa erakusten du, sail bakoitzeko eta kasu bakoitzean eskuragarri dagoen informazioaren arabera.

2021ean gertatzen zen moduan, Hezkuntza Saila da exekutaturako aurrekontuaren kopururik handiena duena, 29.303.699,94 €, eta termino erlatiboetan % 90en gainetik dagoen exekuzio-maila adierazten du.

Bigarrenik, Emakundek exekutaturako aurrekontuaren % 87,3 du eta, hirugarrenik, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Saila dago, % 63,3ko tasarekin.

Osasun Sailaren-Osakidetzaren aurrekontuaren exekuzioa % 99koa da aurreikusitako bost neurritatik batean; gainerakoak, aldiz, berezko baliabideekin gauzatu dituzte.

